



MUGIKORTASUNAZ

Lakuntzako Udalak parte hartze prozesua abiarazi du / 5

Babestutako Gizarte Enpleguan 24 langile, haiendako egokitutako eta lan mundurako prestakuntza jasoz / 9

Altsasuko gaztetxearen 30. urteurreneko ospakizunak gaur despedituko dira / 10

Aldaketarik ezean, finalera Ezkurdia eta Martija pasako dira, inork gustuko ez duen moduan / 20

'Los Goikoetxea' Beatriz de la Vegaren film laburrak 'Zinemakumeak gara!' zikloa ireki du / 22-23

MODA SAKANAN

Udazken-negurako tendentziak
Urriak 23 Guaixe astekarian
publi@guaixe.eus edo 661 52 32 45



Gazteen artean kultura digitala sustatzera

Nafarroako Gobernuak kultura digitalari buruzko tailerren eskaintza egin du laugarren urtez. 10 ikastetxeen bidez 925 gaztek euskarazko tailerretan parte hartzeko aukera izanen dute. 23 herritan ere tailerrak egingen dira, tartean Arbizun eta Altsasun

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) arloan euskararen erabilera sustatzeko eta ezagutzera emateko eta euskarazko kultura digitala sustatzea helburua du Sarean Euskaraz programak. Gazteei zuzendutako programa hori, alde batetik, hamar ikastetxetara iritsiko da eta 4. DBHko eta 1. Batxilergoko 925 ikaslek tailerretan parte hartzeko aukera izanen dute. Zortzi tailer eskaini dizkie Euskarabideak eta haien artean aukeratu beharko dute ikastetxeek.

Gainera, Moodle online ikas-kuntza libreko plataformaren bitartez bi saio eskainiko dira. Horien bidez IKTak modu egokian erabiltzen irakatsi nahi da; horretarako, zenbait jarraibide emanen dira. Prestakuntza osatzeko, 4-5 minutuko hainbat bideo pilula eta horiekin loturiko ariketak eskainiko dira. Saio batean, Maider Likonak (Gipuzkoako software libre) Pribatutasuna sarean gaia jorratuko du, eta beste saio batean, Ane Ortizek (Emaize Sexologia Zentroa) 3.0 harremanak: emadazu like bat gaia.

Doako ikastaroak herrietan

IKTei buruzko euskarazko doako ikastaroen eskaintza Nafarroako 23 herritara iritsiko da. Zortzi tailer praktikoa eskaini dira: Musika sortu, nahastu eta zabaltzeko aplikazioak (Dj Makala); bideomappinga: errealitatea areagotu proiektzioak objektuen geometriara doitzuz (Elurmaluta); App Inventor: Android mugikorrerako aplikazioak sortzeko



Gazteak 3D inprimagailuak erabiltzen ikasten. SAREAN EUSKARAZ

zerbitzua (Talaio); Errealitate birtualera hurbilpena (Protomakers); wikipedia: entziklopedia auzolanean eta euskaraz nola elikatu (Euskal Wikilarien Elkartea); Arduino: elektronika interaktiboaren munduan hasteko (Protomakers); 3D inprimagailuak: objektuak diseinatu eta modelatu (Protomakers); eta Raspberry Pi: plaka ordenagailu txiki eta merkeak (Protomakers).

Bi ikastaro horietako bana hartuko dute Arbizuko eta Altsasuko. Eskaintza 12 urtetik gorako gazteendako pentsatuta dago, baina gai horretan interesa duen edonork parte har dezake ikastaroetan. Horretarako www.sareaneuskaraz.eus web orrian eman behar da izena. COVID-19ak eragindako larrialdiko osasun egoera dela eta, osasun neurriak zainduko dira eta gehienez ere 20 lagunekotaldeak izanen dira.

Sakanan

Doako ikastaroak dira.

- **Robotika** Lastailak 24, larunbata, 10:00etatik 13:00etara, Arbizuko liburutegian. Robotika eta automatizazioan murgiltzen hasteko tailerra, baita eskema elektronikoak interpretatzen ikastea ere

- **3D inprimagailuak** Azaroak 7, larunbata, 17:00etatik 20:00etara, 3D Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. Objektu bat sortu, diseinatu eta modelatzeko prozesu guztia jarraituko duzu objektua inprimatu arte.

Institutuan multimedia aldizkaria sortuko dute

Altsasu institutuko DBHko 3. mailako lau taldeak, 80 ikasleek, aldizkari multimedia sortuko dute 'Sormen digitala' irakasgai berriaren bidez. Nafarroako beste sei ikastetxerekin batera ikasleek euskal kulturaren ezagutza landuko dute sormen artistikoaren bitartez

SAKANA

Altsasu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutuan ikasleek haiek sortutako edukiak aldizkari digital batera nola igo ikasi zuten herenegun. Hezkuntza Departamentuaren Euskara Atalak diseinatutako Sormen digitala irakasgaiaren jardura osagarrietako bat zen trebakuntza saio hori. Ikastaroan gazteei gidioak nola egin; plano orokorrak, amerikarrak eta plano motzak nola tartekatu; leku argietan eta leku ilunetan nola grabatu; grabazioetan soinu eta musika nola txertatu eta mugikorrarekin grabatzeko programak nola erabili irakatsi zieten.

Hezkuntza Departamentuaren Euskara Atalaren fruitua da Sormen digitala irakasgaia. Hango kide da Alberto Barandiaran Amillano eta, azaldu duenez, "euskal kultura transmititzeko modu berri bat bilatzen hasi ginen, eta ikusi genuen ikasgeletan sormena lantzea izan zitekeela aukera bat. Ikasleen interesa piztu genezakeela esanez: begira zer dagoen, zer musika, zer literatura, zer ikus entzunezkoak. Orain, hartu eta egin ezazue zuen modura bertsio bat, edo sortu bideo poema bat, edo egin koreografia bat ikusi duzuen arte lan

horretan oinarrituta". Sortutako guztia grabatzea eta harekin aldizkari digital bat osatzea, telefonoan ikusteko modukoa. Barandiaranek laburbildu duenez, "ikasleen arreta erakarri nahi genuen, eta, era berean, curriculumean dauden gaitasun batzuk garatu".

Odeia Aiestaran Auzmendi institutuko koordinatzailea da eta esan duenez, "oso erakargarria" iruditu zitzaion. "Gehienbat proiektuaren asmoa bikoitza delako: alde batetik, sormena lantzea, eta, beste aldetik, euskal kulturaren transmisioa egitea. Hori kontuan izanik, ikasleek aukera berriak izanen dituzte ekoizpen edo produktu kulturalak sortzeko. Bestetik diziplinartekotasunak aberastasuna ematen die ikasgaiei".

Irakasgaiak ikasturte osoko iraupena du eta hainbat urteetan garatu behar da. D ereduko zazpi ikastetxetan ematen ari dira, aurretik "sormenari buruz lan-

"BEHIN SORTZE PROZESUAN MURGILDUTA GAUDELA, DENOK GOZATUKO DUGU"



EGOKI
Ventanas PVC Leihok

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea - Olazti

EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK

Diseinu soileko lehiak berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 - Iruñea





Ikasleak 40ko taldetan joan ziren lortia kultur gunera ZUTekoekin egotera. UTZITAKOA

keta batzuk egin dituztelako hautatu genituen". Ikastetxeek irakasgaia hautazko gisa edo diziplinarteko proiektu gisa eskaini dezakete. Altsasun azken aukera horren alde egin dute eta, ondorioz, teknologia, plastika, euskara, musika eta gorputz hezkuntza mintegietako zortzi irakasleak koordinatzen dira gaia bere ikasgaietan lantzeko.

Nola?

Euskara Atalekoek irakasleen esku lau tailer utzi dituzte. Barandiaranek azaldu duenez,

"tailerrak ideia batetik abiatzen dira, euskal kulturaren sorkuntza proiektu batetik (*Handia* filma, *Txoria txori* kantua, txalaparta edo frontoia) eta gero aukera ematen zaie hainbat diziplinatik zehar gai ugari lantzeko: komedia, tragedia, askatasuna, berdintasuna edo zentsura". Gaineratu duenez, proposamen zehatzak eta gai ugari daude, "baina era berean oso irekia da, oso zabal eta oso sortzailea".

Lau tailer dira eta ebaluazio bakoitzeko tailer bat landuko

dute Altsasun. Aiestaranek azaldu duenez, "ikasgai guztietako programazioarekin hobekien bat egiten duen tailerra aukeratu dugu: Ezpainzapiarena. *Txoria txori* kanta aurkeztu diegu ikasleei eta, bide batez, Joxean Artze eta Laboari buruzko azalpenak osatu ditugu denon artean". Horiek jasota ikasleek beraiek aipatu zuten askatasunaren gaia. "Hortik abiatuta, bost ikasgaitan, irudimenari eragin, eta ikasleak sormen prozesuan jartzen saiatu gara". Sormenaren bidez musika, ahazkotasuna, gorputz

heziketa edo teknologia lantzeko aukera eskaintzen da. Aiestaranek jakinarazi digunez, "ikasleek sormen prozesuan behar duten denbora izanen dute".

Emaita

Sormen lan hori aldizkari digital batera nola igo ikasteko, Zut, gazteendako aldizkari digitaleko kideen bisita hartu zuten herenegun. Aiestaranek esan duenez, "tresnak eskura emateaz aparte, inguruko baliabideez elikatu gaitezkeela ikusarazi digute ZUTekoek. Denok izan gaitezke

sortzaileak". Ikastetxean Ines Osinaga musikariaren bisita hartuko dute aurrerago: "sortzeko prozesua nola kudeatu jakiteko aberasgarria izanen da, zalantzarik gabe".

Akaberako emaitza aldizkari digitala izanen da. Barandiaranek argitu duenez, "izan daitezke argazki sortak, instalazio bat, kanta baten bertsio bat, esketx bat, ikuskizun bat, elkarrietzak bat. Denetariko tokia da". Aldizkari digitala, "printzipioz ikastetxe barruan geratuko da, edota proiektuan parte hartu duten beste ikastetxeekin ere partekatuko dugu" jakinarazi du Aiestaranek.

Barandiaranek argitu duenez, "ikastetxeek beti dute aukera nork bere intereseko irakasgaia sortu eta hautazko gisa eskaintzeko, baina Departamentuak berak diseinatutako irakasgai gutxi daude.". Joan den urtean xakearen irakaskuntzarekin lotutako irakasgai bat diseinatu zen, eta aurtengo Sormen digitala. "Euskaraz diseinatutakoa, lehenetakoa da hau, lehena ez bada. Proiektu pilotua da aurtengoa, eta gauzak ondo, heldu den ikasturtean ikastetxe gehiagotara zabalduko da". Altsasun proiektuari "martxa hartzen" ari zaizkio Aiestaranen arabera: "ikasleei sortzeko gai direla sinestaz behar diegu, eta hor beraien burua kokatzea lortu behar dugu. Behin sortze prozesuan murgilduta denok gozatuko dugu. Hori da xedea".

"Ikasleek euren sormena lantzea eta garatzea da asmoa"

MONIKA BELASTEGI ARANZABAL ZUT ALDIZKARIKO ZUZENDARIA

Z belaunaldiaren aldizkaria omen da ZUT. Hasteko, zeinek osatzen du Z belaunaldia?

Z belaunaldia, gutxi gorabehera 2000 urtetik aurrera jaio diren gazteak dira. Gaur egungo nerabeak, era digitalean jaio diren natibo digitalak, hain zuzen ere. Eta ZUT aldizkariak (www.zut.eus) gaur egungo nerabe eta gazteengan jartzen du fokua.

ZUT aldizkarian agertzen dira?

Noski, aldizkarian gazte horiek dira protagonista eta kolaboratzaile. Gaztetxo horiek sortutako edukiz hornitutako aldizkaria da; gazteek gazteendako egindako aldizkaria.

Eta zer egiten dute ZUTekoek Altsasu institutuan?



ARTXIBOA

Nafarroako D ereduko zazpi ikastetxetako ikasleek aldizkari digital bat nola egin ikasiko dute Sormen digitala irakasgaiaren jardura osagarrien barruan; eta Altsasuko institutua da ikastetxe horietako bat. Ikasleek ZUT aldizkaria hartuko dute eredu moduan aldizkari digitalak sortzeko eta ZUTeko lantaldea ikastetxez ikastetxe ari da saioak eskaintzen; Altsasuko kultur etxean herenegun izan ginen.

Zertan trebatu zenituzten ikasleak?

Ikus entzunezkoak mugikorrek nola egin daitezkeen erakutsi zitzaizkien ikasleei: nola grabatu, editatu, ahotso jarri bideo bati, azpiztituluak... Gainera, aldizkari digital batek eskaintzen dituen aukerak ere

azaldu zitzaizkien: argazki bidezko kontakizunak, podcast-ak eta era askotako eduki interaktiboak. Horiek guztiak nola egin ditzaketen azalduko zitzaizkien ikasleei, ZUT aldizkaria eredu hartuta.

Nola?

Bi orduko ikastaroak eskaini genituen. Horietan, teoria apur bat azaltzeaz aparte, adibide praktikoak egin ahal izan zituzten ikasleek. Azkenean ikasleek euren sormena lantzea eta garatzea da asmoa eta sortuko duten edukiarekin, azken emaitza aldizkari digital bat egitea.

Altsasuko institutuan noiz egonen zarete?

Herenegun, goizetik eguerdira arte. Guztira 80 ikasleri eskaini diegu ikastaroa, bi txandatan banatuta, kultur etxean.

Ikasleek ikasitakoa institutuko lau pareten artean geldituko da?

Asmoa gazteen sormena bultzatzea da eta sormenak gainditu egiten ditu paretak.



ASTEKOA

JOSUNE GORRITI

Adiskidetasun Akelarrea

"Muskerrak, sugeak eta hildako xomorroak" zioen Alaskaren *Brujas de Ayer* nire nerabegaroko kantak. Bai, 80. hamarkadako haurra naiz, "La bola de cristal" telebista saioa larunbatero ematen zuten garaikoa. Oraindik ere, gogo hartu, eta askatasuna sentiarazten dit kanta honek, nire bizitzako une kuttunetarikoa burura ekarri.

Lizarraldeko mojen ikastetxe batean hiru urte eman nituen, etxera soilik asteburuetan bueltatzen nintzela. Arau zorrotzak ziren ikastetxean. "Señoritas ustedes se quieren extender hasta Abarzuza" esan zigun behin zuzendariak, muturra okertuz, futboleko ondoko larre batean jokatu nahi, eta baimena eskatzera joan ginenean. Debekaturik genuen atsedendietan patiotik ateratzea eta, "señoritas" ginenez futboleko jokatzeko ere ez zen oso egoki ikusten. Paisai ederraz inguraturiko ikastetxea zen: labore soroak, pinudiak eta urrutian Lizarraldeko Dierriko herri txikiak han eta hemen ikusten ziren, urtaroaren arabera soro nabarretan sakabanaturik.

Alaskaren kantari jarraituz akelarre inuxente bat egin genuen lagunak eta biok ikastetxearen inguruko pinudian. Besterik gabe zuhaitzpean sartu, eta kantan eta dantzan aritu ginen. Gainera, guztia borobiltzeko, lau katakume beltzez osaturiko kumaldia aurkitu genuen sasien artean. Zoragarria izan zen adiskidetasun ospakizun

hura, askatasun zirraragarria, are gehiago 12 urteko neskatoak izanik. Bihotzean gorde nuen pasadizoa. Ondoren, 30 urteren bueltan, "akelarre" kideak, lagun berak, telefonoz eta Whatsappez bilatu eta aurkitu ninduen, hobeto esanda gintuen, orain bost urte. Bere ilusio eta kemenari esker, garai bateko EGBko gelakide ohiak berrelkartu ginen. Bizigarria izan zen oroitzapenak partekatzea; hainbeste gertakizun genituen kontatzeko... Aldiz, hain denbora gutxi. Minbiziak jota joan zitzaigun laguna, orain dela urtebete. Plazer handia zein laburra izan zen adiskidea berreskuratzea. Ez dezagun denbora galdu. *Tempus Fugit, Carpe diem*. Eva Caroren oroimenez.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NAN zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Aste honetako atxiloketen aurrean irakurketa:

SAKANAKO SARE

Aste honetan Guardia Zibilak Ekhine Eizagirre, Kepa Arkauz eta Imanol Jaio atxilotu ditu, inongo azalpen eta zitaziorik gabe. Asteazkenean hirurak aske geratu badira ere, horrek ez dio inolako larritasunik kentzen iraganari loturiko gertakari horri.

Atxiloketa hauek onartezinak dira. Konponbide garaia da, ez akusazio zaharkitu eta korapilatsuen baitan espetxeak betetzen jarraitzeko. Bakearen eta konponbidearen bidean atzerapauso argia izan da. Sarek salatu nahi du, batetik, Guardia Zibilaren indar erakustaldia, eta, bestetik, Auzitegi Nazionalaren jarrera; izan ere,

mendekua eta sufrimendua irau-naraztea beste helbururik ez du operazio polizial eta judizial honek, eta iraganean ainguraturiko justizia baten jokabidea islatzen du, egin dutena egiteko nahikoa baitzen epaitegira joateko agindu judiziala helaraztea halako ikuskizun mediatikoa prestatu gabe.

Erabaki hau azken urteetan euskal jendarteak, hala nola, euskal instituzio, eragile, sindikatu eta alderdi politikoei adierazitako konponbide nahia zapuztera dator; auzi honi aterabidea emateko ordua da, ez korapilo berriak sortu eta sufrimendua areagotzeko. Ulertezina zaigu, herri gisa aurrera urratsak egiten ari garen

honetan, gehiengoaren nahia urteetako sufrimendu eta minak gainditu eta aurrera egitea denean, oraindik ere, atzera begira eta gorrotoak eta mendekuak bultzatuta mugitzen den gobernu baten jarrera. Nori egiten dio mesede min honek?

Egoera hau gogor salatu nahi dugu eta jaio ginenetik ditugun konpromisoetan berresten garela adierazi; bakea, bizikidetzeta eta konponbidea. Argi diogu, euskal preso eta iheslarien etxeratze prozesua abian jarri eta muturreraino eramane artean lanean jarraituko dugula. Horregatik, Sarek urriaren 24an Donostian egingen den manifestazio deialdia berretsi, eta guztiok parte hartzera gonbidatu nahi ditu; izan gaituzten bidea.

Konponbide garaia da! Urriaren 24an denok Donostiara!

GUTUNA

Euskara erdigunera!

MAIALEN PELAEZ, JUNE BENGOTXEA, MAIALEN BEGIRISTAIN ETA HAIZEA RAMIREZ DE ALDA

ALTSASUKO EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herria hasi da dagoeneko Euskaraldirako motorrak berotzen. Beste behin ere, aukera paregabea izango dugu duela bi urte hartu genuen euskararen aldeko konpromisoari segida eman edo horretan sakontzeko. Euskal Herrian Euskarazek urteak daromatza norbanako zein kolektiboetan eragiten, ahobizi zein belarripresten rola lantzen eta ariguneen moduko arnaguneak sortzen. Bide horretan, altsasuarak euskararen aldeko konpromisoak hartzera gonbidatu nahi ditugu. Baina gaurkoan, Udolari dei egin nahi diogu batez ere.

Orain dela bi urte Altsasuko Udalak Euskaraldiraekin bat

egin eta herritarrei ekimenean parte hartzeko deia egin zien. Dena den, udalean euskaldunak 2.mailako herritar sentitzen gara. Azkenaldian, euskararen esparruan aurrerapausoak ematetik urrun, atzerapausoak eman eta orain arte errespetatzen ziren hainbat hizkuntza eskubide ez errespetatzen hasi da. Hori da, hori, marka! Alarma egoeran egon ginen hilabeteetan osasun jarraibideak jasotzen zituen informazio panel bat jarri zuten udaletxean. Panel horretan gaztelaniari ematen zitzaion lehen-tasuna; azken egunetan basoan zein mendian hainbat kartel ikusi ditugu, baso lanez ohartaraziz nahiz ez aparkatzeko eskatuz. Denetan gaztelaniak zuen lehentasuna eta, gainera, euskarazko oharrek akats mordoa ageri zuten; udalaren webgunean sartuta, hainbat dokumentu gaztelania hutsez daude. Hiru adibide baino ez dira.

Altsasuko Udalean euskararen erabilera arautzen duen ordenantzak honakoa dio 41.artikuluaren: "Altsasuko Udalak euskara eta gaztelania erabiliko ditu (elebitasun normalizatzailea baliatuko du, hau da, euskara lehenesten duen elebitasuna) herritar guztiei zuzentzen zaionean". 42.artikuluaren esanetan du elebitan izanen direla (elebitasun normalizatzailea) euskarri tradizionalen zein teknologia berrien bitartez zabalduetako kartelak eta informazio plakak. Udala, beraz, bere hitza jaten ari da.

Pasa den astean, bando baten bidez, Euskaraldian parte hartzera animatu gintuen udalak. Guk adierazpen bat egin edota argazki bat ateratzetik harago, euskararen aldeko jarrera erakutsi dezan eskatzen diogu. Hitzetatik ekintzetara pasa eta euskararen ordenantza betetzea exijitzen diogu. Ea Altsasuko Udalak ere euskara gehiago, gehiagorekin eta gehiagotan erabiltzen duen. Euskara erdigunera!

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Irene Trecet Obeso
maketatzaia@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Kolaboratzailea:
Rebeka Mendoza

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Miren Alonso Razkin

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

BAZKIDEAK





Gripearen kontrako txertoa jartzeko egokitu dute Burunda pilotalekua.

Pandemia garaiko ohiko txertaketa

Gripearen kontrako txertoa jartzeko kanpaina astelehenean hasi zen eta azaroaren 27ra arte indarrean izanen da

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Osasun kontseilari Santos Indurain Ordunak nafarrak gripearen kontra babestera animatu ditu, kutsatzeak saihestu eta arrazoi horren bidezko heriotza tasa murrizteko. "Eta oraingoan arrazoi gehiagorekin COVID-19aren pandemia dela-eta". Kanpaina gripearen ondorioz osasunean ondorio handiagoa izan dezaketen pertsonen zuzentzen zaie batik bat: 60 urtetik gorakoei, haurdunaldiaren edozein unetan dauden emakumezkoek edota efektu larriagoak eragiteko osasun arazoak dituzten heldu eta 6 hilabetetik gorako haurrei.

Gripearen kontrako txertoa hartzeko 2019/2020 kanpainan zehar, Nafarroan 15.576 kasu diagnostikatu ziren (aurreko urteko 545 gehiago), 449 lagun ospitaleratu ziren eta 17 pertsona hil ziren.

Eskaerak Internet eta telefono bidez

Aurten, berrikuntza moduan, pasa den astetik hasita, osasun-zentro gehienetan hitzordua aurrez Internet bidez hartzeko sistema aktibatuta da, izan osasun-karpetarekin edo citasalud.navarra.es web orrialdearen bitartez (erreserba egin daiteke CIP-NArekin, osasun txarteleko zortzi zifrako zenbakiarekin eta jaiotza egunarekin). Bestela,

osasun etxeetara hots egin behar da hitzordua hartzeko.

Sakana

Irurtzango osasun eskualdean osasun etxean eta kontsultategian egiten ari dira txertaketa. COVID-19agatik Osasunbideak erizain bat gehiago kontratatu du Irurtzango osasun eskualderako. Medikuri ez dago eta ezin dira kontratatu. Haien oporrak eta bajak ordezkatzeko nahikoa lan izaten dutela adierazi digute Irurtzundik.

Etxarri Aranazko osasun eskualdean ere osasun etxean eta kontsultategietan ari dira txertoak jartzen. Osasunbideak ez du Etxarri Aranazko osasun eskualdea mediku, erizain edo administrazioko langile gehiagorekin indartu. Halakorik egin ez den ibarreko eskualde bakarra da.

Altsasuko Burunda frontoian opatu dugu Mamen Oiarbide, osasun etxeko erizaina. Gripearen kontrako txertoak han jartzen ari zaizkie altsasuarrei. "Aurten, pandemia dela-eta, ahalik eta jende gehien ahalik eta denbora gutxienean txertatzea interesatzen da. Gripearen kontrako immunizazioa gaitza agertu aurretik lortu nahi dugu. Distantziak eta bestelako neurriak bete ahal izateko tokirik onena frontoia izanen zela pentsatu genuen".

Zazpi egunetan egonen dira osasun arloko langileak frontoian eta egunero 200 pertsona txerta-

tuko dituzte. 12:00etatik 14:00etara ari dira txertoa jartzen. "Baina bihar eta hurrengo asteazkenean, azokarekin bat ez egiteko eta jende pilaketak saihesteko, 15:00etatik 17:00etara izanen da txertaketa Burunda frontoian". Aita Barandiaran adinduen egoitza eta Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoko kontutan hartuta, aurreko urteetan 1.600 bat txerto jartzen dituzte Altsasun. Txertaketa kanpaina behar bezala egin ahal izateko lanaldi eta erdi gehiagorekin indartu du Osasunbideak Altsasuko osasun etxea aurten. Izan ere, Burunda frontoian txertoak jartzen ari ziren bitartean, osasun etxean COVID-19 gaitza atzemateko PCR probak egiten aritzen dira 06:30etik (astelehenean 120).

Pandemiak eragindako egoerarekin osasun etxean nola moldatzen ari diren galdetuta, Oiarbidek esan digunez, "oso gaizki eramaten dugu. Medikuri baten errefortzua behar genuke, baina horretarako ez dago medikuri. Erizaintzan lanaldi eta erdi gehiago lortu dugu, baina erizain falta sumatzen da. Administrazioan langile bat gehiago dago".

Aldageletako atetik sartu behar da frontoira. Ordu laurdenero daude hitzordua jarrita eta sarrrera kudeatzeaz udaltzain bat arduratzen da. Behin barruan, jende pilaketak saihesteko zirkuitua prest dute. Harmailaren ondotik frontiserantz joan beharra dago. Ilara sortuz gero lurrean jarritako marketan itxaron beharra dago. Erizainak izen-abizenak ziurtatu ondoren, ezker paretaren ondoan dauden mahaietara bideratzen ditu. Hara iristean beso buru bat agerian utzi behar da eta adina adierazi ondoren txertoa jartzen dute. Bi erizain daude horretarako. Txertoa jarri ondoren, ezker paretaren ondotik kalera aterako da jendea. Oiarbidek azaldu digunez, "dena oso arin doa. Oso ongi doa". Udalak eta udaltzainek emandako laguntza eskertu ditu.

Altsasuko osasun etxeak lau telefono linea ditu. Gripearen kontrako txertoa jartzeko hitzordua eskatu nahi duenak 10:00etatik aurrera deitu behar duela jakinarazi dute. "Horrela, 08:00etatik 10:00etara, egunean bertan arreta behar duten deiak hartuko ditugu".

AISIALDIKO
BEGIRALEEN LAN-POLTSA

GUTXIENKO BALDINTZAK:

- Euskaraz jakitea, ahoz nahiz idatziz. C1 egiaztatu beharko da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua edo horren baliokidea.

KONTUAN IZANGO DA:

- Gidatzeko baimena eta autoa izatea.
- Aisialdiko begirale titulua.

Harremanetan jartzeko modua:

Interesa dutenek beren curriculumak honako helbide honetara bidali beharko dute:

euskara1@sakana-mank.eus

Oink Guaixen... Sakanako txerriak

Urritzolako Javier Correarek eta Lakuntzako Joseba Ganboak txerriekin lan egiten dute. Batak, Euskal Txerriak Andia magaletan hazten ditu, besteak, txerri txuriak ogibide ditu. Abeltzaintza ulertzeko bi modu desberdin gure ibarrean

Rebeka Mendoza SAKANA

Txerrien mundua nahiko konplexua da, abeltzain mota desberdinak daude txerri arraza desberdinak bezala. Lakuntzan, ustiaketa intentsiboa ematen da, aldiz, Urritzolan, abeltzaintza estentsiboaren aldeko apustua egin dute. Bi kasuetan familia enpresak dira eta biak txerrikumeekin lan egiten dute: Lakuntzan 25 kg izan arte eta Urritzolan titi txerriak hazten dituzte.

Joseba Ganboak bere aitaren afizioa bere ogibidea bilakatu du. Bera eta bere arreba aitaren pausoak jarraituz gaur 450 txerri emeko ganadutegia dute. Lakuntzarrak, 25 urte daramatza sektorean, berak txerrikumeak erditu eta hazten ditu. Hau da, txerrikume jaio berriek 25 kg izan arte mantentzen ditu, gero beste abeltzain batzuei saltzeko. Nafarroako Grupo AN Kooperatibaren parte denez, bertako beste esplotazioei txerrikumeak saltzen dizkie. Batzuetan, txerrikumeak Torres del Río, Cascanete, Dicastillo edota Arellanora eramaten ditu, loditegien okupazioaren arabera.

Kooperatiban egoteak kudeaketan lanetan Ganboari erraztasun asko ekartzen dizkio, besteak beste, kooperatibaren irabaziaz guztionak dira baina galerak ere, noski. Horretaz aparte, salerosketa guztia bazkideen artean egiten da: txerrien sendagaiak, pentsua, eta abar. Gainera bazkide bakoitza kate berdinarekin parte da, batak txerrikumeak loditu eta besteari saltzen dizkio, eta hurrengoak txerri horiek 110 kg arte loditzen ditu, eta horrela zikloa itxi arte. Jaiotzetik, gure etxeetara.

Euskal txerria

Javier Correarek, gutxi darama txerrien munduan. Orain dela 8 urte, Irurtzungo azokan bere lehendabiziko Euskal Txerria erosi zuen. Hasieran bi eme baino ez zituen, gaur aldiz, 27 eme eta 2 ar ditu. Berak, goizetan, Iruñeko arrandegi batendako lan egiten du eta, arratsaldeetan, txerriei arduratzen da. Bi mastin ditu lagun, haiek basurdeak eta beste urrun mantentzen dituzte Correa ez dagoenean.

Orain dela gutxi arte, urritzolarrak hestebeteak saltzen zituen,

hau da txerrien zikloa berak ixten zuen (txerriak jaio, hazi, loditu, hil eta saldu). Hori egiteko, kanpoko laguntza behar zuen, baina produktuaren kontrola galtzen zuenez ezin zuen egiaztatu produktu guztiak kalitate berdinekoak izatea. Horregatik, gaur, titi txerriak saltzen ditu. Berak, txerrikumeak belarra jaten hasi baino lehen hiltegira eramaten ditu. Gerora, hainbat harategi eta jatetxetan saltzeko. Sakanan, Arruazuko ostatuan eta Etxarrengo Iratzar jatetxetara eramaten ditu.

Hasieran, leku gutxi batzuetan saltzen zuen. Gaur egun, beste Euskal Txerriaren hazkuntzan lan egiten duten abeltzainei titi txerriak erosten dizkie. Gutxi batzuk dira, tartean altsasuar bat, baina pasa den urtean 800 txerrikume saldu zituzten, eta aurten mila inguru saltzearen aurreikuspena dute. Kalitatea leku gehiagotara ailegatzea nahi dute.

Hazkuntza

Lakuntzako txerriak, txerri txuriak dira, Landrace Large White arrazakoak. Txerri mota honek, zaintza asko behar du, batez ere



Javier Correa Urritzolako abeltzaina. REBEKA



Joseba Ganboa Lakuntzako abeltzaina. REBEKA

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

BiLTOKi
TABERNA • JATETXEA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Errazioak

Eguneko menua 11€
Menu berezia 15€

Jangela lehen solairuan
edo terrazetan

948 467 876 • Altsasu

erraz gaixotzen delako. Leku itxietan egoteak haien hazkuntza errazten du eta hotza harrapatetik babesten ditu. Emeak bizitzan zehar zazpi aldiz erditzen du, bataz beste, 28 txerrikume izan ditzakete urtero. 14 erditze bakoitzeko. Emeak ernaltzeko intseminazio artifiziala erabiltzen dute. Horrela, txerrien zikloari hasiera ematen diete.

Txerrien abeltzaintza intentsiboa ziklo motzetan lan egiteagatik bereizten da. Lakuntzan, 15 egunero faseak berriz hasten dira: ernalketa, titiak kentzea, loditzea eta beste abeltzain bati eramatea. Txerrikumee bi hilabete inguru pasatzen dituzte bertan, 25 kg lortzen duten arte. Gero, lehen esan bezala, Nafarroako beste ganadutegi batzuetara doaz.

Euskal Txerriak galtzeko zorian egon ziren. Arraza horretako produktibitatea txikia zenez, hau da, txerrikume gutxi ematen zituztenez, abeltzainen interesekoa izateari utzi zion. Duela mende batzuk, Euskal Txerriak gure mendien jaun eta jabe ziren. Urteekin, aipatutako arrazoiak eta txerrien izurriteak bere lekua kenduzion. Gaur, Euskal Txerriak aske ikusteko Iparraldera jo behar genuke, Belaguaren beste aldean aske bizi dira. Nafarroan aldiz, legediak ez du txerriak mendian askatzea baimentzen.

Gure ingurunea bere habitat naturala denez, ezin hobeto moldatzen da. Oso ongi jasaten baititu gure klimaren ankerkeriak, hortaz arraza indartsua dela esan genezake. Arrazoi hauengatik Correak Euskal Txerrien aldeko apustua egitea erabaki zuen.

Urritzolako txerriak etxe ondoko larreetan bizi dira, bertatik ateratzen dute behar duten elikagaia. Javierren hitzetan oso gustura bizi dira ez baitakite zer den albaitari bat, legediak eska-

tzen dituen txertoak eta saneamendua baino ez dituzte.

Ar nagusienak 8 urte ditu, nahiko zaharra da eta, horregatik, ar gazteago bat ekarri du, lehia txikia dute baina errespetatzen dira. Emeen kasuan, zaharrenak 7 urte inguru ditu eta itsua eta gorra da. Hala ere, bere bizitza osoa bertan eman duenez oso ongi mugitzen da. Gainera, orain dela aste bat 8 txerrikume erditu zituen, osasuntsu dagoenaren seinale.

Euskal Txerrien emeak 3 hilabete 3 aste eta 3 eguneko ernaldiak dituzte, urtero bi izan ditzakete. Jaiotzen den txerri kopurua 10 ingurukoa da. Lehen, txerriak mendietan ibiltzen zirenean 4 edo 5 txerrikume zituzten. Etxetik gertu egoteak, txerrien elikadura eta bizi baldintzak hobetu ditu.

COVID-19

Batzuendako pandemia mundial baten erdian egon arren, txerriek ez dute gehiegi nabaritu, eta are gutxiago Sakanako gure bi protagonistak. Lakuntzarrak beti bezala lan egin du, produkzioa ez da jaitsi. Urritzolakoak, berriz, salmenta bide berriak bilatu behar izan zituen konfinamendu garaian. Ostalaritza gelditu zenez, titi txerriei irteera emateko harategietara jo zuen, promozio berezi bat sortuz: txerri laurden bakoitzeko ardo botila opari.

Etorkizunera begira, biak nekazari politikek diotenari adi daude. Javierrek ez ditu laguntza bereziak eskatzen, administrazioen babesa bakarrik. Horretarako, salmenta prezio bidezkoak ezartzea beharrezkoa ikusten du. Horretaz aparte, txerrien etiketatzeko egoki bat eskatzen du, jendeak zer jaten duen jakin dezan.

Aurten ez dugu lehen sektoreko azokarik izango, baina Sakanan badugu txerria non erosi. Sakanan bizi, lan eta jan.



Urritzolako euskal txerriak. REBEKA

EUSKARALDIA

GEHIAGO, GEHIAGOREKIN, GEHIAGOTAN

Azaroaren 20tik abenduaren 4ra

EMAN IZENA!

www.euskaraldia.eus

f t i

euskaltzaileen topagunea

Gobierno de Navarra

Nafarroako Gobernua

Urdalurko hoditeria luzatzetik gertuago

Satrustegi eta Etxarren arteko lanen eraginaren kudeaketa eta obra zuzendaritzako lanak emateko deia

SAKANA

Urdalurko uharkan jasotako ura goi horniduraren hoditeriaren bidez Irurtzunera arte eramane nahi du Sakanako Mankomunitateak. Gaur egun Satrustegira arte iristen den ho-

diteria Etxarrengo ur biltegitira arte luzatu nahi du Mank-ek. Bi puntuen arteko distantzia 2.140 metro ingurukoa da. Hoditeria nagusitik bi adar aterako dira, bata 450 metro ingurukoa Zuhatzuko ur biltegitira

joanen dena eta bestea, 650 bat metrokoa Ekaiko ur biltegitira joanen dena. Lanak hainbat eragin sortuko ditu eta horien kudeaketa eman nahi du Mank-ek. Lan hori egin nahi dutenek beraien eskaintzak hilaren 13ra arte aurkeztu ditzakete. Lanen truke 3.600 euro ordainduko ditu Mankek. Aldi berean, ibarreko erakundeak aipatu lanen zuzendaritza emateko deialdia egin du 11.903 euroren truke. Interesatuak beraien eskaintzak hilaren 20ra arte aurkez ditzak-



Hodiak jartzeko lanak. ARTXIBOA

kete. Bi kasuetan 13:30era arte dago eskaintzak aurkezteko epea. Eta kalitate eta prezio erlazio onena duen eskaintzari emanen zaio lana.

Sakanako Mankomunitateko lehendakari David Oroz Alonsok azaldu duenez, bi lan horiek eman ondoren etorriko da lanak emateko deialdia. "Aurten bertan lanei hasiera ematea nahiko genuke, heldu den urteko udarako edo despeditzeko". Mank-en Ur Zerbitzuaren 551.000 euro bideratu ditu lan horietara.

zurekin oroitu naiz

SAKANAKO LIBURUTEGIETAN
URRIAREN 13Tik ABENDUAREN 9RA

PARTE HARTU, GOZATU ETA GOZARAZI!

- 1** Hartu euskarazko liburu bat liburutegitik, eramane etxera eta gozatu irakurketaz.
- 2** Pentsatu liburu hori nori oparitzeko zentzuen.
- 3** Liburua itzultzerakoan bete parte-hartze fitxa zure datuekin eta idatzi beretako mezua.
- 4** Herri guztietako fitxak jasotzean 500 liburuaren zozketa egingo da. Tokatuz gero, oparitu nahi duzun liburuak jasoko duzu etxean, mezua liburuan itsatsirik duela.
- 5** Zuzentzaileak bati pertsona bati liburu bat.

GAINERA, LIBURUTEGI BAKOITZEAN EBOOK IRAKURGAILUAK ZOZKATUKO DIRA PARTE-HARTZAILEEN ARTEAN.
INFORMAZIO GUZTIA TOPAGUNEAN. EUS/IRAKURRI WEEBUNEAN.

Elkarrekin irakurri, elkarrekin gogoratu. Irakurri eta gogoratu, elkarrekin gogoratu.

IRAKURRI GUZTIAK: **IRAKURRI GUZTIAK:** **IRAKURRI GUZTIAK:**

IRAKURRI GUZTIAK: **IRAKURRI GUZTIAK:** **IRAKURRI GUZTIAK:**



Joan zen asteazkenean egindako elkarretaratzeara.

Osasun etxeen defentsarako deia

Lehen Mailako Arretarako pertsona eta material ballabide gehiago aldarrikatuko dituzte asteazkenean,

ALTSASU

Foru geografian barnako 26 kontzentrazio baino gehiago egin ziren osasun etxeen parean herenegun. Horietako bat Altsasun egin zen eta *Osasun etxeak defendatu* lelopean 30 bat pertsona elkartu zituen. Nafarroako Osasun Plataformak deitutako bilkurak izan ziren, Oinarritzko Osasun Arretarako osasun zentroen defentsan deituta. Plataformak dinamika abiarazi du "Oinarritzko Osasun Arretarako ereduaren aldaketa aldarrikatzeko helburuz". Izan ere, Nafarroako Osasun Plataformako kideen iritziz, "bai profesional publikoaren arlo horren egoera larria kezka handiz bizi dute".

Nafarroan barna egindako bilkuretatik Osasun Departamentuari eskatu zioten "jasaten dugun arretaren kalitatearen okerragotzea zuzentzeko, neurri

zuzentzaileak eta esanguratsuak hartzeko". Departamentuak iragarritako 55 profesionalen errefortzua "ez da, inondik inora ere, nahikoa; askoz gehiago behar dira, eta osasun zentroen zerbitzu politza zabalduko duten osasun kategoria berriak ere behar dira, gainera".

Hala ere, Nafarroako Osasun Plataformako kideek "osasun kudeaketa ereduaren aldaketa zorrotz baten beharra" ikusi dute. "Eredu berria behar dugu, ballabide gehiago eskainiko dituen prebentziorako eta hezkuntzarako, auzo eta herriekiko gertutasuna lantzeko eta sozio ekonomia desberdintasunak gainditzeko".

Horregatik, Nafarroako Osasun Plataformatik herritarrak eta profesionalak lastaileko asteazkenean, 11:00etan, osasun etxeen parean kontzentratzera animatu dituzte.

Hydroren estrusio-prentsa handia lanean da

Aluminio profilak egiteko estatuko estrusio prentsa handiena Irurtzongo Hydro lantegian dago eta berriki hasi da lanean. Proiektuak 9 hazbeteko prentsa 10 hazbetekoa bihurtzea ekarri du, eta 3.500 tonatik 4.000 tonarako indarra handitzea. Ondorioz, propietate mekaniko handiko aleazioetan geometria zorrotzagoak ateratzeko aukera du Irurtzongo Hydroko lantegiak. Aldi berean, lodiera erlatiboki baxuko soluzioak emateko gaitasuna mantendu du.

Prentsa egokitzeaz aparte, enpresak aluminioa birziklatzeko instalazioen egokitzapena egin du, dimentsio berrietara egokitutako lehengaiak hornitzeko, eta segurtasunaren arloko hobekuntza esanguratsuak egin ditu ere. Norvegiako multinazionalak 1,5 milioi euroko inbertsioa egin du proiektuak aurrera egiteko. Enpresatik azaldu dutenez, Irurtzongoa "erreferente izan da beti Hydroren barruan ikerketa, garapen eta berrikuntza arloan".

Iparraldeko Autobiako zati bateko zorua berrituko dute aurki

Lurralde Kohesiorako Departamentuak Iparraldeko Autobian (A-1) bide zorua sendotzeko lanak eman ditu. Gasteizko noranzkoko galtzadan, Altsasuko Murgilgo tunelen iparraldean dagoen tartea da, NA-1000 errepide gaineko zubia hartzen du. Lanak Asfaltos de Biurrun, S.A. enpresak egingen ditu 640.000 euroren truke.



Udaleko garbitzailea kalean lanean. ARTXIBOA

Babestutako gizarte enpleguan 24 pertsona ari dira

Lana eskaintzeaz aparte, Gizarte Zerbitzuek haien beharretara egokitutako prestakuntza eskaintzen diete

SAKANA

Gizarte Eskubideen Departamentuak Nafarroako 45 gizarte-zerbitzuak dituzten 45 udal eta mankomunitateren artean 5.255.593 euro banatu ditu. Haren bidez babestutako gizarte enpleguo programak garatzeko aukera izan dute erakunde horiek. Dirutza horretatik Sakanako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen hiru mankomunitateek 197.324,78 euro jaso dituzte (%3,75): Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 70.750,98 euro jaso ditu, Etxarri Aranatz aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 37.006,26 euro eta Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 89.567,54 euro.

Hiru eskualdeak

Irurtzun aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek zazpi pertsona hartu dituzte lan egiteko, sei emakumezko eta gizonezko bat. Urte guztirako proiektua bada ere, langileei sei hilabeteko kontratua egin diete. Haietako bat Irurtzongo Udalarendako garbiketa lanak egiten egon da eta gainontzeko seiak Iturraskarri proiektuaren barruan, herriz herri lan egin dute. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin 40 hilabete finantzatu dituzte eta udalek jarritakoarekin beste 2. Iturraskarri aurrera egiteko begirale bat ere kontratatu dute. Horretarako udalek 10.000 euro inguru jarri dituzte eta foru administrazioak 7.000 bat.

Etxarri Aranazkoan bost pertsona kontratatu dituzte (hiru emakumezko eta bi gizonezko). Haietako lau Etxarri Aranatz ari dira lanean eta bosgarrena Lakuntzan. Haietako hiruk urte erdirako kontratua dute, batek bost hilabeterako eta batek hiru hilabete eta erdirako. Guztien artean 27 hilabete egingen dituzte lanean. Horietatik, 21,5 hilabete dirulaguntzarekin finantzatu dute. Udalek gainontzeko bost hilabeteak pagatuko dituzte.

Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 12 pertsona kontratatu dituzte (10 emakumezko eta 2 gizonezko), baina urtea despeditu aurretik bizpahiru gehiago hartuko dituzte. Urte erdi eta urte beteko kontratuak dituzte. Pertsona horiek Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko udaletako langileekin batera lan egiten dute normalean, besteak beste, kale garbiketa, eraikinak margotzea, lorezaintza lanak eta beste egiten dituzte. Mankomunitateak 60,5 hilabeteko kontratazioak egiteko dirulaguntza jaso du. Haietatik 54,69 hilabete gobernua pagatzen ditu eta gainontzeko seiak udalek.

Sakanako hiru Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek lanarekin batera, haien beharretara egokitutako eta lan mundura begirako prestakuntza eskaintzen die. Kontratazioen %80 Errenta Bermatua jasotzen duten pertsonen artean egingen dira, eta gutxienez %50 emakume langabeen artean, horiek baitira langabezia tasa handienak dituztenak.

Mugikortasuna, hilabete honetako gaia

Lakuntzako Udalak herritarren parte hartzearekin mugikortasun plana egin nahi du. Parte hartze dinamika sustatzeko Nafarroako Gobernuaren 1.149,5 euro jaso ditu. Aste honetan etxeetan galdetegia banatuko du udalak

LAKUNTZA

Patxi Xabier Razkin Sagastibel-tza alkateak esan duenez, herrian distantzia handirik ez izanda ere, "azken urtetan antzeman dugu jendeak gero eta gehiago erabiltzen duela autoa batetik bestera herrian barna mugitzeko eta oinezkoekin gatazka txiki batzuk sortzen dira". Esaterako, jabetu dira gutxi batzuk autoak espaloi gainean uzten dituztela. Gogora ekarri du udalak plaza oinezkoendako eremu bihurtzeko erabakia hartu zuela. Ordutik, ibilgailuek Mikel Arregi kalea eta plaza gurutzatzen diren espazioan 20 kilometro orduko abiaduran pasa behar dute. Razkinek adierazi duenez, "plazak gero eta bizi handiagoa du: terrazak, umeak... Jendeak gero eta denbora gehiago pasatzen du plazan.

Alkateak azaldu duenez, "dinamika horri segituz, oinezkoen lehentasuna emateko irizpidearekin berriro dira Larrañeta, Kañada eta Mendigain kaleak: espaloi zabalak, aldapa gutxiarekin, arkitektura oztoporik gabekoak, erraz eta seguru mugitzeko". Gainera, oinezkoen lehentasunezko espazioa Larrañeta eta Kañada kaleen izkinaraino luzatu du udalak.

Razkinek Lakuntzan oinezkoendako dauden beste bi arazo ere aipatu ditu: estuak diren kaleak, espaloi oso estuak edo espaloirik ez duten kaleak. "Lortzen diren ondorioekin herri guztia egokitzeko epe ertain edo luzeko plan bat egin beharko da". Alkateak azaldu duenez, "klima aldaketa kontuan izanda eta Europako hainbat hiritan bezala, herrietan ere gai honekin 'pilak jarri' behar ditugu eta oinez, bizikletan edo mugitzen hasi behar dugu".

Parte hartze prozesua

Alkateak gogorarazi duenez, hauteskunde aurretik eginda



Mugikortasun plana egiteko parte hartze dinamika sustatuko ditu udalak.

"JASOTAKO EKARPEN GUZTIAK HILABETEA DESPEDITU AURRETIK AURKEZTU NAHI DITUGU"

ko parte hartze prozesuan jende mordoak izan zela eta mugikortasunarena izan zen atera zen gaietako bat. "Gaia herritarrek jarri dute mahai gainean. Prozesu guztia herritarrekin egitea zen gure asmoa. Baina COVID-19aren ondorioz aurtan ezin izan dugu egin".

Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza deialdiaren berri izanda erabaki zuten deialdira aurkeztea, "jakiteko lakuntzarrek zer nolako herrian bizi nahi duten eta zer nolako arazoak ikusten dituzten egunerokoan. Ondorioekin mugikortasuna arautzeko plana egingen dugu". Udalak Garrapo SM enpresa kontratatu du lan horiek egiteko. Amaia Esparzak eta Edurne Gerendai- nek dagoeneko hainbat lakuntzar elkarriketatu dituzte. "Jendearen kexak edo arazoak entzun eta bideoz grabatu dituzte".

www.lakuntza.eus web orrian ikusgai dago bideoa. Gainera, aste honetan herriko etxeetan galdetegi bat banatu du udalak, hura erantzun eta hilaren 19ra arteko epea dago udaletxeko buzoian uzteko. Horrekin batera, lakuntzarrek beraien kexak edo argazkiak Garraporen Whatsapp bidez (<https://labureus/oC4KI>) bidaltzeko aukera dute ere. Lakuntzako eskolako ikasleei beste mota bateko galdetegi bat egingen diete, haien ikuspuntua ere kontuan hartu nahi baitute.

Jasotako ekarpen guztiak dokumentu batean batuko dituzte. "Ondorio horiek herriari aurkeztu nahi dizkiogu hilabete akaberan (23a eta 29a bitartean). Baina COVID-aren kontuagatik nola egin aztertzen ari gara, gero etorkizunean gauzatzeko. Gauza batzuk konpontzen errazak izanen dira. Baina kale oso bat berriro behar denean zailagoa da. Kontzientzia hartze kanpaina ere egin beharko dugu, esaterako, ongi edo gaizki aparkatzea zuzentzen oso erraza delako. Planifikazioa egin beharko da". Hilabetea despeditu aurretik Nafarroako Gobernuan aurkeztu beharko dute egindako lana.



UTZITAKOA

Etixeratzea, elkarbizitza, bakea

Sarek Euskal Herriko 650 tontorretara igotzeko deialdia herrietako plazetakoagatik ordezkatu zuen. Sarekideek adierazi zuten, "jendarteak konponbidearen bidea gauzatu nahi du; preso eta iheslarien etxerako bidea eta elkarbizitza eta bakerako bidea". Aldi berean, hilaren 24an Donostian egingen den manifestaziora joateko deia egin zuten

Lastailaren 12an ezer ospatzeko ez dagoela esan dute

Egutegi ofizialetan gorritz markatutako egunetako bat da lastailaren 12a. Hispanitatearen eguna ez ospatzeko deia egin dute Sakanako gazte asanbladak. Horrekin batera, *Hispanitatea suntsituz Euskal Herria eraiki* leloa duen manifestazioan parte hartzera deitu dute. Mobilizazioa Lakuntzako plazatik abiatuko

da 19:00etan. Altsasun, bestalde, errepresioaren kontrako Ospa mugimenduak astelehenean ospatzeko ezer ez dagoela nabarmendu du. *Ez hispan@, ez benemerit@* lelopean bi hitzordu prestatu ditu: 12:00etan, *Anuk-en egia* dokumentala emanen dute gaztetxean, "Ertzaintzaren lehen gerra zikin kasuaz". 18:00etan, berriz, udaletxe parean kontzentrazioa izanen da. Hura bukatuta, Lakuntzara joateko deialdia egin du Ospark.



DUELA 25 URTE...



Altsasuko toponimoak haitzetan zizelkatzen

Berezko toki izenak jakin ez eta izen berriak asmatzen zirela kezkatuta, Santi Zelaia 1982an Altsasuko dermioa mapa argitaratu zuen. Han herriko toponimiaren berri eman zuen. Baina altsasuarren artean herriko toki izenen ezagutza zabaltzeko bere ahaleginean Zelaia hainbat tokitan bertako izena zein zen zizelkatuta utzi zuen. Zelaia "pozik" zegoen gazte askok berarengana jo zuelako. Hala ere, kezka zuen, "gure lurraz asko zekiten pertsonak hil direla ikusten dudanean".

"Gaztetxeak 60 urte betetzean joanen gara"

Altsasuko gaztetxeak 30 urte bete zituen astelehenean. Hiru hamarkadak ospatzeko Altsasuko Gazte Asanbladak egitaraua prestatu du aste honetarako. COVID-19 gaitzak baldintzatuta prestatu dute egitaraua

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Euskal Herrian dauden gaztetxe zaharrenetako bat da Altsasukoa. Asanbladako kideek adierazi digutenez, "poztekoa da zerrenda horretan egotea". Izan ere, horrek gazte asanbladan eta gaztetxean bertan belaunaldi aldaketak izan direla esan nahi du. "Urtemuga iristean pentsatzea zenbat belaunaldi pasa diren hemendik, zer nolako ekimenak prestatu diren, azken finean, zer den gaztetxea, zer den gazte asanblada, zergatik eman zen okupazioa... Hori guztia birgogoratzeak etorkizunerako indarra ematen dizu".

Kideek jakinarazi digutenez, "gazte asanblada hazi egin da. Geroz eta kide gehiago gaude lanean. Kuadrilla pare bat eta beste gazte batzuk nahiko gogotsu sartu dira". Beraz, Altsasuko Gazte Asanblada osasuntsu dagoela diote. Hala ere, "herriko gazte gehiago animatzen ditugu bertan parte hartzera, lanera sartzera". Kideek aitortu dutenez, "COVID-19aren kontuarekin ezin da gauza handirik egin, baina gazte asanbladan borrokarako, herria eraikitzeko gogo horiek daude".

Pandemiak ere eragin dio gazte asanbladaren jardunari. Konfinamendu garaian gaztetxea itxita egon zen. Garai hartan sortu zuten Elkartasun Sarea. "Bilera telematikoko batzuk izan genituen. Boluntario asko animatu ziren eta erosketak egiten lagundu zuten". Alde Zaharreko festak antolatzeke bilera telematikoren bat izan bazuten ere, "gure ideia eta nahia gaztetxera bueltatzea zen. Ateak irekitzea. Bizirik mantendu beharko dugu etxea". Horregatik, ahal den neurrian, "betiko martxa hartzen saiatzen ari gara. Pixka bat kostatzen ari da". Asteazkenero asanbladak eta ostiralero pintxopoteak egiten dituzte. Eta "ahal den moduan, urteurren ospakizuna".



Etxajuak bide eman zien 30. urteurrenako ospakizunei.

"ASKO EMATEN DIZU. HAINBAT BELAUNALDI EZAGUTZEN DITUZU. HARREMANETARAKO BESTE ESPAZIO BAT DA"

Gaineratu dutenez, "COVID-19k ekarri dituen ondorio sozial, ekonomiko, politikoak eta denak asetzeko espazio bat beharrezkoa da. Eta gatazka edo borroka hori landuko duten espazioak ere beharrezkoak dira". Dagoeneko urteko plangintza egiten hasiak dira gazte asanbladako kideak. Hainbat tailer antolatzea pentsatu dute, "gaztetxeari bizi gehiago emateko. Ez delako soilik parranda gunea, edo pintxopoterako gunea. Baizik eta gazteon espazio bat, guztion artean kudeatu beharko duguna. Gauza politik eta alternatiboak atera daitezke hortik".

Izan ere, gazte asanbladako kideen iritziz, gaztetxea "ez da bakarrik zer gauza egiten dituzun. Baizik eta zer ekarpen egiten dizun. Gaztetxeak baditu helburu batzuk. Zerbaitegatik sartzen zara. Badaukazu mundua alda-

tzeko grina, edo borrokarako puntu bat. Asko ematen dizu. Ekimen pila egiten dira. Hainbat belaunaldi ezagutzen dituzu. Harremanetarako beste espazio alternatibo bat da".

Egitaraua

Ospakizunak txupinarekin eta bertso auzatearekin hasi ziren astelehenean. Joan den urtean gaztetxea morez margotu zuten eta zenbait mural egin gabe utzi zituzten. Herenegun aurrekoan ate ondoko paretan murala margotu zuten. Herenegun asteroko asanblada izan zen gaztetxean eta atzo gaztetxetik pasa diren belaunaldien arteko mahai ingurua izan zen. Hizlariak bakoitzaren garaiko dinamiken eta beraien bizipenen berri eman zuten. "Belaunaldi bakoitzaren lana ikusi zen" Despeditzeko, gaur, 20:30ean, pintxopotea eta argazki erakusketa izanen da.

Asanbladako kideek esan dutenez, "penaz gaude. Aurtengo egitarauak oso potentia izan behar zuen. Ideia oso politik genituen. COVID-19agatik ezin ditugu urteroko kaldereteak egin. Baina, beno, beste urte baterako utzi beharko dugu".



Beikolar auzoko bidegurutze ondoko bi etxe. ARTXIBOA

Beikolarko auzokideak proiektuarekin kezkatuta

Epai batek udalak auzoa urbanizatzea behartu du eta kooperazio sistema ezarria dagoenez, lur jabeak, udala barne, ordaindu beharko dituzte lanak. Auzokideek Baikolar Bizirik plataforma sortu dute

ALTSASU

Ondoren Altsasuko kasazio helegitea onartu ere ez zuen egin auzitegiak eta beraz, Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusiaren 2017ko martxoaren 15eko epaia finkoa da eta ez dago helegiterik jartzerik. Epaia zioenez, Beikolarrek bizitegi erabilera izan behar du eta hori jasotzen duen Plan Berezia egin behar du udalak; 2002ko Hirigintza Planean, dagoeneko, hiri lur kontsolidatu gisa hartu zelako. Horrela itxi zen Beikolarreko auzokide batek 2002an hasitako auzibidea.

Epaia udala behartu zuen bizitegi erabilera izanik, Beikolarrerako hirigintza Plan Berezia egitera. Hau da, auzo hori urbanizatu egin behar da. Udal arkitektoak egindako aurreneko memorian egun dauden etxebizitzak antzekoak aurreikusten dira, beheko solairua eta altuera bat duten etxebizitzak.

Beikolarreko hirigintza unitateak 35.638 metro karratu ditu eta urbanizatzeko dirutza beharko dela aurreikusten da. Hirigintza planean jasotzen denez kooperazio sistema dago indarrean eta lur jabeen artean pagatu beharko lirateke urbanizazio lanek sortutako kostuak. Duten azaleraren arabera eginen lukete ordainketa jabeek. Lur jabeen artean dago udala

eta, gainontzeko lur jabeek bezala, bere partea ordaindu beharko luke.

Plataforma

Auzotar talde bat Baikolar Bizirik plataforman bildu da, "auzoak bizi duen egoera bidegabea salatzeko helburuz". Gaineratu dutenez, "injustizia" bizi dute. Plataformako kideek salatu dutenez, "makroproiektu baten aurrean gaude, eta ez da bideragarritasun planik aurkeztu, ez ingurumenekoa, ez bizigarritasunekoa, ezta ekonomikoa ere".

Plataformatik azaldu dutenez, auzoa urbanizatzeko bi aukera leudeke. Aurrean, etxe guztiak botatzea eta ondoren urbanizazioa egitea eta, atzena, egun dauden etxebizitzak kontsolidatzea eta jabeek lursailaren zati bati uko egitea. Plataforman antolatu diren auzotarrek azaldu dutenez, "bi aukeretako edozeini aurre egitea ezinezkoa da familiendako, ekonomia gastu handia ekarriko lieke". Aitortu dutenez, gaiak auzoan "kezka zabaldu du". Altsasuarrak Beikolar eta bere ingurua babestera deitu dituzte. "Familia gutxi gara eta oso zaurgarri sentitzen gara".

Auzokideak ez daude udalaren jarrerarekin gustura: "jokaera iheskorra izaten ari da. Proiektuaren inguruko datu konkre-

turik ezta informazio zehatzik ez du eman. Kopururik ere ez dugu jaso. Ezjakintasun honek ziurgabetasun eta babesgabetasun egoera batean uzten gaitu". Baikolar Bizirik taldeko kideek alkatearen eta udal arkitektoaren jarrera salatu dituzte: "banakako hainbat bileretara deitu gaituzte, alkatearekin eta arkitektoarekin, eta horietan alkatea ez da agertu. Gainera, udal arkitektoak ez du zalantzarik argitu, jarrera oldarkorra eta enpatiarik gabekoa azalduz". Gaineratu duenez, udal arkitektoak "teknikoa eta edonorendako ulergaitza den hizkuntza erabili du. Askotan alkatearengana bideratzen gaitu, baina honek ez gaitu hartu nahi". Horregatik, diote: "halako jarrerak onartezinak dira edozein kargu publikoarengandik".

Udala

Altsasuko alkate Javier Ollo Martinezek kontziente da "epaiak dakartzan gorabeheraz eta kezke". Aldi berean, gogorarazi du Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak emandako epaia irmoa dela eta "nahiz eta juridikoki ados ez egon, nahitaez bete behar da. Epaitegiak berak udalari hainbat alditan planaren izapidearen egoerari buruzko informazioa eskatu dio". Beikolarre-

rako plan berezia onartu ondoren joan den urteko irailean parte hartze plana martxan jarri zela gogorazi du alkateak: "ni, idazkaria eta udal arkitekto aholkularia egon ginen. Arkitektoa da Plan Berezia idazteaz arduratu dena. Bileran parte hartzeko deia egin genien eragindako jabeek".

Alkateak azaldu duenez, orduz geroztik arkitektoak bakarkako bilerak izan ditu Beikolarreko jabe bakoitzarekin. Bilerak horietan "kasu bakoitza aztertu da eta Plan Berezia berriaren 'sartzeko' aukerak aztertu. Jabeen eta arkitektoaren arteko bilerak egin dira irailean, atzera ere". Ollok azaldu duenez, orain jabe bakoitzari gutun bat bidaliko dio udalak. Idatzian urbanizazioa egiteko dauden alternatibak azalduko zaizkie eta jabeek, nahi izanez gero, haiendako egingarriena

zein den esan dezakete. "Epaia betetzeko, ondoren etorriko dira Plan Berezia hasierako onarpena, jendaurrean jartzeko fasea eta behin betiko onarpena". Alkateak gaineratu duenez, "Plan Berezia idazteko eta onartzeko hasierako fasean gaudenez, zaila da ekonomia kalkulu zehatzak egitea, baina hori posible denean, jabe bakoitzari jakinaraziko zaio".

Ollok gaineratu duenez, "epaia Hirigintza Plan Nagusi baten eta hura interpretatzen duten ebazpen judizialen isla da, eta arazo ugari eragin ditu herrian azken 18 urteetan. Horregatik, Udala parte hartzeko prozedura bukatu duen Hirigintza Plan Nagusi berria idazten ari da, eta laster 'lurraldearen estrategia eta okupazio eredua' dokumentua onartu eta jendaurrean jarriko du".

berria ekitaldiak Artedrama, Auzit eta Dejabu konpainiek aurkezten dute:

Urriak 24 | **Altsasu**
Larunbata • 19:30 | Iortia kulturalunea

Sarrerak:

- Aurretik **12 €** (BERRIALagunek **10 €**)
- Egunean, **14 €** (BERRIALagunek **12 €** - txartelarekin)

Sarrerak salgai:

- BERRIA: Berria.eus/berrialaguna/denda helbidean edo **943-30 43 45** telefonora deituz.
- Iortia kulturalunean eta www.iortiakultura.com helbidean.

Ekitaldian osasun neurri guztiak bermatuko dira. #KulturaSeguruaDa

Antolatzaileak: **berria** **BADOK** **Mank** Laguntzaileak: **Nafarroako Gobernua** **Gobierno de Navarra** **Altsasu Udala**



Ibarrekoen emaitza: Beriain 4., Larrezabal 9., Albi 10., Uharte 11. eta Juananeko 13.

Angel Linzoainendako Nafarroako gazta txapelketa

Aralar Mendi elkarteak antolatuta, igandean jokatu zen, ateak itxita, frontoian. Ez zen enkanterik izan

UHARTE ARAKIL

Artzain Egunaren barruan, agorrilaren 30ean, jokatzekoa zen XXXIX. Nafarroako latxa artesne gazten lehiaketa. COVID-19 gaitza ez zabaltzeko ekitaldi jendetsuak bertan behera uztea erabaki zen eta, horien artean, Uharte Arakilen artzaintzari gorazarre egiteko eguna ospatu gabe gelditu zen. Aralar Mendi elkarte antolatzaileak, ordea, gazta lehiaketa antolatzea erabaki zuen eta atzo jokatu zen.

Larrabieta pilotalekuan jokatu zen gazta txapelketa, ateak itxita eta segurtasun neurri guztiekin. Artzainek gaztak eman eta joan egin behar izan zuten. Dozena bat epaile binaka jarri zituzten mahaietan eta lehiaketara aurkeztutako 13 gaztak datzera eman zien antolakuntzak. Epaileen mahaiak frontoiko kantxan barna zabaldu ziren, distantzia mantentzeko. Halako

txapelketetan ohikoak diren irudiak ez ziren ikusi, esaterako, epaileak gaztak esku artean ibiltzen, itxura edo begiak zituen aztertzeko. Gainera, gazta zatiak ontzi berezietan jaso zituzten epaileek. Epaileek aldamenean hidrogela izan zuten uneoro.

Sari banaketarekin despeditu zen ekitaldia, ez baitzen gazta enkanterik izan. Bestalde, Uharte Arakilgo lehiaketak Euskal Herriko gazta txapelketarako txartelak banatu zituen. Lehiaketa hori Idiazabalen jokatu da igandean. Lehiatuko diren gazten artean Sakanakoak ere badaude: Beriain, Albi eta Juananeko borda.

Aurten ez da Artzain Eguna izan, baina Aralar Mendi elkarteak hainbat artzain, epaile eta ardi motzaile elkarrizketatu zituen eta bideoz grabatu. Guztiek eguna nola bizi zuten kontatu zuten kamera aurrean.

Gasbide proiektua hizketagai izanen da

Gaur, 18:30ean, Irurtzongo kultur etxean. Alkateak eta hiru erakundeetako ordezkariak izanen dira hizlariak

ARAKIL / IRURTZUN

Nafarroako Gobernuak Etxeberri eta Lekunberri artean gasbide baterako baimena eman du. Azpiegitura horretarako aurreikusitako ibilbidea Aralar mendian barna da. Guztira 14,6 kilometroko luzera eta 8 metroko zabalera luke gasa eramateko lanek utziko luketen aztarna. Mendian barna gasbidea egiteko egitasmo hori ez dute egoki ikusi Arakil eta Larraungo udalek. Horregatik, bi udalek administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu dute. Eta, aldi berean,

gasbidea Plazaolako bide berdetik eramateko eskatu dute. Aukera horrek ingurumenari eragindako kalteak gutxituko lituzkeela uste dute bi udaletan.

Pikuxar euskal txokoak proiektuari buruzko solasaldia antolatu du gaurko, "eraiki nahi den gasbidearen inguruan informazioa emateko eta iritzia partekatzeko". Solasaldian Mikel Uharte Martijak, Larraungo alkateak eta Oihana Olaberria Jakak, Arakilgo alkateak, hitza hartuko dute. Beraiek azalduko dute proiektua juridikoki zein

egoeratan dagoen, zein baimen dituen eta abar. Izan ere, Nafarroako Gobernua lurraren desjabetzeak egiten hasia da.

Haiekin batera solasaldian hitza hartuko du hiru erakundetako ordezkariak. Batetik, Larraungo Ondarea taldeko Javier Irigoien izanen da. Berak, Larraun ibarrean antzinako ondarea berreskuratzeko egiten ari diren lanaren berri emanen du. Eta, bestetik, Sustrai Erakuntza fundazioko Martin Zelaiak eta Larraungo Kalaxkako Mikel Saralegik gasbidea eraikitzeke zeuden proiektu aukerez eta gaur egun abian denaz hitz egingen dute. Gainera, Pikuxar euskal txokotik jakinarazi dutenez, proiektuak kalteku ditzakeen beste herri batzuetako kontzejuburuak ere gonbidatuta daude solasaldira.



ARTXIBOA

Zizazaleek itxaron beharko dute

Etxarri Aranazko ziza eta landare erakusketa aurten ez da egingen. Talde antolatzaileko Ventura Mundiñanok azaldu duenez, "pandemiagatik bertan behera utzi dugu. Aparte, ez dago zizarik. Oso gutxi daude". Altsasun, bestalde, mikologiarako hastapen tailerrak

hilaren 30an eta 31n izanen dira, 18:00etatik 19:30era. Tailer horietan ziza genero arruntenak ezagutzeko aukera izanen dute parte hartzaileek. Bi egunetan edo bakarrean parte hartu daiteke. Izena emateko: micologiaalsasua@gmail.com edo lortian.

AMAYA OKINDEGIAK
ESKERTU NAHI DIZU
EGUNERO GUREKIN EGOTEA.
 BIZITZEN ARI GAREN EGOERA ZEIN DEN JAKITUN,
 GURE ESKURA DAUDEN SEGURTASUNEO
 NEURRI GUZTIAK BETETZEN ARI GARA.

Zurekin 1964tik eta orain inoiz baino gehiago.

ZUREKIN 1964- GEROZTIK

Amaya
 OKINDEGIA

ALTSASU
 678 323 403
 • Iruña Hiribidea, 48
 948 468 026
 Zumalakarregi Plaza, 3
 670 389 017
 • San Juan Kalea, 50
 948 562 185
 • Otadiko Kristo Deuna, 19

UHARTE-ARAKIL
 691 83 41 36
 • Mandikoa, 3

VITORIA-GASTEIZ
 • Postas, 33
 945 148 368
 • Arriagako Atea, 12

ETXARRI-ARANATZ
 948 461 660
 • Kale Nagusia, 4

OLAZTI
 948 468 755
 • Orreaga Kalea, 1

ARAIA
 945 314 572
 • Andoni Urrestarazu, 3

Eskerrik asko!

Aurten gaztainak oraindik berde daude

Aurten gaztaina beranduago datorrela ikusteko aukera izan zuten Gaztaina Mozte Egunean parte hartu zutenak. Igandeko ibilaldian bi motatako sei gaztainondo seinaleztatu zituzten

ARBIZU

Eguraldiak ez zuen lagundu eta aurreko urteetan baina jende gutxiago elkartu zen Gaztaina mozte egunean, 15 bat bakaikuar izan ziren domekan. Mandubita eta auntzetxearen arteko bidea egin zuten, Agustin Lopez de Zubiria gidatuta. Hark ibiltariei azaldu zien hiru gaztainondo mota daudela: irurriya, latxa eta saboia. Bi motako gaztainak daudela ere gaztigatu zuen Lopez de Zubiriak: gaztainlatxak, txikiak eta goizter ontzen direnak, eta gaztain saboiak, berantiarrek eta tamainaz handiagoak direnak. Igandean bertan hiruna saboi eta latxa gaztainondo kartelez seinaleztatu zituzten, eta hurrengo egunetan beste hiru inurriya gaztainondo markatuko dituzte. Horrela, herritarrek batzuk eta besteak desberdintzen ikastea nahi dute.

Aurreko urteetan baino gaztaina berdeagoekin topo egin zuten bakaikuarrek domekan. Klimagatik, antza, ez da urterik onena. Basoko ibilaldiaren ondoren, Koxko tabernan udazkeneko pintxoak dastatzeko aukera izan zen.

Ondarea

Gaztainondoak Bakaikuko natura ondarea direla eta haien



Bakaikun urtero antolatzen dute Gaztaina mozte eguna. UTZITAKOA

egoera txarrak eragindako kezkatik sortu zen eguna, eta gehiago. Izan ere, gaztainondoen inguruko lan taldea sortu zen Bakaikun eta ordutik, besteak beste honakoak egin dituzte: gaztainondoen ingurua garbitu eta haiek markatu, hitzaldia, tailerra, gaztainak potetan erein hurrengo urtean landatzeko, gaztainondo berriak landatu.

Bakaikuko Udalean pentsatzen hasiak dira duela lau urte landatutako gaztainondoak txertu beharko direla, behintzat indarra hartu dutenak. Bestalde,

oraindik ez dakite gaztainondo gehiago landatuko dituzten. Basoan bakanketak egin behar dira eta ez dela erraza gaineratu dute udaletik.

Bakaikuko familia bakoitzak hainbat gaztainondo zituen garai batean, beharrezko elikagaia baitzen. Gaztainak hartzeko eguna bando bidez jakinarazten zuen alguazilak. Basotik abere guztiak ateratzen zituzten eta basoa zaintzen bi guarda edo iguraitxiki jartzen zituzten. Zehaztutako eguna iristean, ezkilak jotzean, bakaikuarrak basora joaten ziren.



Joan den urteko Txistor Eguna. ARTXIBOA

Txistor Egunaren faltan ekoizleen azoka izanen da

COVID-19 gaitzagatik aurten ez da Txistor Egunik izanen, baina igande goizean 34 ekoizle izanen dira

ARBIZU

Pandemia ez hedatzeko segurtasun neurriengatik, Arbizuko Udalak erabaki du aurten Txistor Eguna bertan behera uztea. Antolatzen zen 12. aldia litzateke. Hala ere, udalak iganderako azoka antolatzea erabaki du. Horrela, udalak bertako produktuen saltzaileei babesa azaldu nahi

die. Karrika Nagusian 34 salmahaien arteko distantziak gordetako dira osasun agintarietara ezarritako neurriak errespetatzeko. Haietan erosi nahi duenak 10:00etatik 14:00etara pasa behar du Arbizutik. Azokaz aparte, Hodei magoaren ikuskizuna hartuko du Arbizuk larunbatean. 19:00etan izanen da, plazan.

Azken aatea

Arbizuko festez aparte, aateak lau egun seinalatuta elkartzen ditu arbizuarrak: maiatzaren 15ean, San Isidro; irailaren 8an, Ama Birjinaren eguna; irailaren 29an, San Migel eta, azkenik, lastailaren 12an, Pilarekoa. Pandemiak aurtengo auzateak guztiz itxuraldatu ditu. Zilarrezko tazetatik ezin da ardorik edan eta jatekoa ere ezin du edozeinek nahi bezala eta nahi beste hartu. Osasun neurriak bete ahal izateko itxuraldatutako aate horietan plastikozko edo kristalezko edalontziak erabiltzen ari dira, bakoitzak berea. Eta pintxoak aurrez egindakoak dira, bakoitzak banan banan hartzeko. Astelehenean, 20:00etan, plazan.

bardokak
2020
Nafarroako Taldekako Bertsolari Txapelketa

Finala
LIZARRA
Urriak 17, larunbata.
Lizarra ikastolan, 17:00etan.

Ateaberts komeni (Leitza)
Lamixene (Bera)
Bertsonautak (Malerreka-Baztan)

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus atarian eta Lizarra ikastolan (urriak 16ra arte)

www.bertsozale.eus

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN
BERRI ASTEAZKENEN EGUERDIA
BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 9

IRURTZUN Hitzaldia: Etxeberri-Lekunberriko gasbidea.

Hizlariak: Arakilgo eta Lekunberriko alkateak, Sustai erakuntza, Ondare eta Kalaxka elkarteak kideak. Edukiera mugatua eta maskara derrigorrezkoa. 18:30etan, kultur etxean.

ARBIZU ETA ETXARRI ARANATZ
Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzeak. 20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 10

ALTSASU
Emozioen kudeaketa tailerra. 16 urtetik 30 urtera. 10:00etatik 14:00etara, Intxostiapunta gazte gunean.

ARBIZU
Bertso bazkari – Dastaketa. Udazkeneko kartaren aurkezpena eta dastaketa. Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus. Gai jartzailea: Xabier Terreros. 14:00etan, Ekokanpinean.

ALTSASU Intxostiapuntaren urtemuga. Escape room. 18:30etan, Intxostiapuntan.

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEA

La boda de Rosa gaurkotasunezko filma
Ostirala 9, 22:00

jSchooby! familiarreko filma
Igandea 11, 17:00

La boda de Rosa gaurkotasunezko filma
Igandea 11, 19:30

El glorioso caos de la vida zineforuma
Igandea 11, 19:40

En busca de Summerland gaurkotasunezko filma
Osteguna 15, 19:00

Un diván en Túnez zineforuma
Osteguna 15, 19:00

ARBIZU Hodei magoaren emanaldia.
19:00etan, plazan.

ALTSASU Euskaraldia
Batordearen izena emateko eta informatzeko mahaiak. 18:45etik 19:45era, Iortia kultur gunean.

ALTSASU Adriana Bilbao dantzariaren Burdina ikuskizuna. Sarrerak: aurretik 12 euro, egunean bertan 15 euro. 19:30etan, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 11

ALTSASU Egierreta-Agiri-Madotz ibilbidea eginen du Altsasuko Mendigoizaleak taldeak. Antolatzailea: Gema. 08:00etan, egoitzatik.

OLATZAGUTIA Meri, Mari eta Lari familiarreko ikuskizuna. Sarrerak: 3 euro. 17:00etan, kutur etxean.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrira elkarretaratzea. 20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 12

ALTSASU Pentsio duinen alde. Sakanako Jubilatuen eta Pentsiodunen Koordinakundearen kontzentrazioa. 12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ALTSASU Ez hispan@, ez benemerit@: Anuken egia Ertzaintzaren lehen gerra zikin kasuaren inguruko dokumentala. Ospak antolatuta. 12:00etan, gaztetxean.

ALTSASU Ez hispan@, ez benemerit@: Urriak 12 ezer ez ospatzeko kontzentrazioa. Ospak antolatuta. 18:00etan, udaletxearen parean.

LAKUNTZA Hispanitatea suntsituz Euskal Herria eraiki manifestazioa. Sakanako Gazte Asanbladak antolatuta. 19:00etan, plazatik.

ASTEAZKENA 14

ALTSASU Osasun etxea zaindu! Oinarrizko osasun arretarako baliabide gehiago eskatzen ditu Nafarroako Osasun Plataformak. 11:00etan, osasun etxearen parean.

ALTSASU Hizketaldi literarioa: Lluís Llachena Memoria de unos ojos pintados. 18:00etan, Iortia kultur gunean.

OSTEGUNA 15

LAKUNTZA Kattalingunea bulegoa.

Harremanetarako: Goretti Etxepare Alberro sexologoa: 948 229 149 eta 678 266 865 telefonoetan eta iparmendebaldea@kattalingune.org. 11:00etatik 19:00etara, udaletxean.

IRURTZUN Dorisen marrazkiak. Irailean eta urrian. Pikuxar euskal txokoan.

ALTSASU Altsasuko IX. Arte Azoka. Urriaren 9tik 31ra arte. Iortia kultur guneko erakusketa aretoan.

OLATZAGUTIA Lur azpian. Desobiratzeko goiztiarrak Nafarroan erakusketa. Urriaren 1etik 16ra astelehenetik ostiralerara 16:30etik 20:30era. Liburutegian.

ZORION AGURRAK



June
Zorionak maitia, egun ederra eta polita pasa dezazula opa dizugu. Askok maite zaitugu! Aitona eta amona.



IRAGARKI SAILKATUAK

IKASTAROA
Joskintza eta len-
tzeria ikastaroa
Olaztin: Urriaren
19tik maiatzera arte,
astelehenetan (17:30-
19:30) eta ostegune-
tan (18:00-20:00).
Izen ematea urriaren
5etik 14ra. Udaletxe-
ra deituz edo olazti@olazti.com helbidera idatziz.

OHARRAK
Odol emateak Irur-
tzen: Urriaren
15ean 16:45tik
20:30ra.

Intxostiapuntako ordutegia: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igandea eta jaiegunetan 17:00etatik – 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etatik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etatik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralerara 7:30tik 15:00etara eta asteazkenetan 7:30tik – 12:00etara eta 17:00etatik – 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, inxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net.

Altsasuko Txantxari ludoteka: Izena ematea Ludotekan bertan. Ludoteka urriaren 13an zabalduko da. Ezertapenak urriaren 30 arte. Ordutegiak: 2012-2008 (astelehen, asteazken eta ostiralean 15:30-16:45 eta astearte eta ostegunetan 18:30-20:00), 2016-2013 (astelehenetik ostira-

lera 17:00-18:15) eta 2020-2017 (astelehen, asteazken eta ostiralean 18:30-20:00). Aurten 0-3 urteko saioak doakoak izango dira, baina, familiak izena eman behar dute talde egonkorak sortzeko helburuarekin (laguntzen duen heldua beti pertsona bera izango da). Informazio gehiago 948 467 471 / ludoteka@altsasu.net.

ETB-ko "Biba zuek" saio berrirako euskaraz ikasten ari diren pertsonen bila dabilte: Donostiako Miramongo estudiantetara joan eta zuzenean elkarriketatuak izateko prest egongo diren pertsonak. Euskararekin lotura berezia dutenak, bizimodu desberdina edo historia bitxiak dituzten pertsonen bila dabilte. Profil hau betetzen duen norbait ezagutzen baduzu 943 011 682 (haintza)-655 283 427 tfnoetara deitu edo bibazuek@eitb.eus helbidera idatzi. Aldez aurretik, mila esker.

Arropa bilketa: Etxarri Aranazko boluntario taldeak arropa Elizkorta kaleko bere egoitzan jasotzen du astelehenetan, 17:00etatik 18:30era. Egoera onean dagoen arropa eraman behar da, garbi dagoena. Derrigorrezkoa da maskarekin sartzea. www.iragarkiaburak.eus

BAZKIDE ZOZKETA LASTAILEKO SARIAK

1. SARIA:
EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilabetez doan
EREIN: Argitaletxearen liburu bat

2., 3. ETA 4. SARIAK:
DONOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
EREIN: Argitaletxearen liburu bana

DE KOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa • Balkoien eta terrazen itxitura • Kolore guztietako mallorkinak • Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovenavarra.com • www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860

ESKELA



Dori Ansotegi Lizarraga
 Iñaki Velez Zufiaurren alarguna
 —Goian bego—
 "Jakizu gure bihotz bakoitzak zure puskatxo bat daramala."
 Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertzen ditu.
 Etxarri Aranatz

ESKELA



Francisco Garaialde Arrieta
 Esther Garaialde Katarain irakaslearen aita
 Urak dakarrena urak daroa,
 zuk emandakoa gurekin gelditzen da.
 Iñigo Ariza ikastolako familia, irakasle, ikasle eta langileak

ESKELA

Kintin
 "Beti guu biyotzetan"

 Zu emaztie ta zu alabak

OROIGARRIA



Iosu Garmendia Garcia
 "Trumoi en eta ostotsen ostean, ekaitza joan denean eta eguzkiarekin bat egiten duenean, ortzadarra ateratzen da"
 Jasone

OROIGARRIA



Benigno Mendia Goikoetxea
 V. urteurrena (Urriaren 10ean)
 "Gure bihotzetan zaude"
 Zure familia eta lagunak
 Urdiain

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
 edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80 € / 130,68 €
 prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

EGURALDIA ASTEBURUAN

Ostirala, 9

 Min. 11° Max. 20°

Larunbata, 10

 Min. 7° Max. 14°

Igandea, 11

 Min. 6° Max. 11°

Astelehena, 12

 Min. 5° Max. 12°

Jarri zure iragarki laburra!
 948 56 42 75
 iragarki@guaixe.eus
 www.guaixe.eus/iragarkiak

JAIOTZAK

- **Larraitx Osas Gelbentzu**, irailaren 11n Irurtzun
- **Eki Burillo Olaetxea**, urriaren 1ean Lakuntzan
- **Aratz Jauregi Ulaia**, urriaren 4an Altsasun

EZKONTZAK

- **Maria Francisca Navarro Perez eta Valentin Codon Olasagarre**, irailaren 25ean Irurtzun

HERIOTZAK

- **Maria Jesus Arregi Sarasa**, urriaren 5ean Irañetan
- **Mikaela Bakaikoa Razkin**, urriaren 6an Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.


IZARRA
 HEMEN, ZURE ONDOAN
 AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
 tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70
 @Grupolrache
 Grupolrache
 www.tanatoriosirache.es

Martilek uste du taldeak 'potentzial handia' duela

ARETO FUTBOLA Gaur, ostirala, Osasuna Magna Xotak O'Parrulo taldea hartuko du Anaitasunan, 21:00etan. Aste gogorra izan da Tatono, Imanol eta Pedro Arregik arreba bat galdu dutelako, eta jokalariek euren babesa azaldu diete

Aurreko astean hasi zen Lehen Mailako Areta Futboleko Liga eta Osasuna Magna Xotak Pateran jokatu zuen, Levanteren kontra. Levante denboraldi honetarako gehien indartu den taldea da, baina badirudi Irurtzongo misterrak etorkizun handia duten jokalariek gazteak erakartzeko usaimen berezi hori ez duela galdu. Levante 2 eta 0 irabazi zion talde irurtzundarra, baina sentsazio onekin itzuli ziren berdeak, izan ere soilik atean asmatzea falta izan zitzaion, ongi jokatu eta itxura oso ona eman baitzuten. Punteria faltatik galdu zuten, eta hori da indartu beharko dutena.



Roberto Martil eta Asier Llamas irurtzundarrak dira taldeko kapitainak. XOTA

Kapitainaren iritziz Imanolek "talde polita" egin du

Imanol eta Tatono Arregi ez ziren Levanten egon, arrazoi pertsonalengatik, arreba bat oso gaixo baitzuten, tamalez aste honetan zendu dena. Horregatik, jokalariek misterrarekin eta presidentarekin %100ean daukela nabarmendu zuen Roberto Martilek Levanteko partida bukatu bezain pronto. "Aste gogorra izan da. Jokalariek presidentarekin eta misterrarekin gaude, euren familia guztiarekin eta beraiena den armarri honekin. Partida irabazi eta 3 puntuak eraman nahi genituen, baina puntuak ihes egin ziguten" adierazi zuen.

Talde berrieta da aurtengo Xotarena, aurreko urteko bajek baldintzatutakoa. "Jokalariek handien bloke bat izan gara urte askotan, klub honen historia diren jokalariek, baina egoera hau iritsi beharra zegoen. Nabarmenezkoa da Imanolek talde oso polita egin duela dugun aurrekontua kontuan hartuta; ilusio handia dugu. Jakina, bidesaria ordaintzea tokatuko zaigu, akatsak izango ditugu, baina

ilusioa badugu. Gure taldeak norantz joko duen ez dakigu, baina nik uste dut talde honek potentziala duela, eta ea lana eginez helburu politetara heltzen garen" aipatu zuen kapitain irurtzundarrak.

Gaur ligako 2. partida

Anaitasunan

Gaur, ostirala, Osasuna Magna Xotak O'Parrulo Ferrol taldea hartuko du Anaitasuna pabilioian, 21:00etan. COVID-19 pandemia dela eta, aforoa %30ekoa da eta sarreraren erreserba egin dutenek 19:00etatik 21:00etara jaso ahalko dituzte euren sarrearak Anaitasunako txarteldegian. Pandemia dela eta, segurtasun neurriak zorrotzak izango dira. Besteak beste, ikusle guztiei tenperatura hartuko zaie, uneoro maskara jantzita eraman beharko da, eta segurtasun tarteak eta distantziak zaindu beharko dira.

Zaleek gogoz hartuko dute Anaitasunako partidaren buelta eta, ziurrenik, giro bikaina eta harrera beroa egingen diete jokalariei eta baita animoz nahiko ukituta dauden arregitarrei. Xota berria bueltan da.

Lan bila zabiltza?

Eman izena **Sakanako Mankomunitateko** kirol monitore, entrenatzaile eta aurkezle euskaldunen lan-poltsan!

Baldintzak:

18 beteak izatea, euskalduna izatea eta oinarritzko kirol titulazioa izatea.

Izen-ematea:

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan, 948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com postan.

Erabiltzaileak:

Begirale euskaldunen eta aurkezleen zerrendak Sakanako udal eta mankomunitateek zein entitate pribatuek erabili ditzakete. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzua bitartekaria izanen da. Ez da lan-harremanik sortuko Sakanako Mankomunitatearen eta zerrendako kideen artean.

Mank
s a k a n a

Kirol Zerbitzua eta Euskara Zerbitzua

AIZKORA Resanok 1. mailari eutsi dio baina Beltzak ez

Lekunberri Nafarroako 1. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa hartu zuen igandean. Bi kanaerdiko, bi 60 ontzako eta oinbiko bat erdibitu behar izan zituzten aizkolariek, eta Iker Vicentek maila ikaragarrian jarraitzen duela erakutsi zuen, Aparteko estuasunik gabe lanak bukatzen lehena izan baitzen (12:52). Jon Rekondori ia 3 minutu atera zizkion (15:51). Eneko Saralegi 3. sailkatu zen (17:38), Ruben Saralegi laugarren (17:46) eta Oier Kañamarek bosgarren (18:08). Hain zuzen ere lehendabiziko bost aizkolariek abenduaren 6an Donezteben jokatu den finalera sailkatzea lortu zuten.

Julen Kamarek 6. izan zen (18:45) eta Iban Resano dorrobarra 7. (19:01). Beraz, 1. mailari eustea lortu du Resanok. Joxean Etxeberria 8. sailkatu zen (19:16), Goizeder Beltza etxarriarra 9. (20:59) eta Xuban Kañamarek 10. (21:20). Bi azkenek, Beltzak eta Kañamaresek, maila galdu eta 2. Mailan jokatu dute.



Albisuk, Agirrek, Ezkurdiak eta Martijak larunbateko finalerdietako pilotak bereizi zituzten asteazkenean. ASPE

Modu honetan ez dute nahi

PILOTA Baikoko pilotariek grebako deialdiari eutsi diote eta azken orduko aldaketarik ezean, Agirre eta Albisu ez dira agertuko Binakako finalerdian Ezkurdiaren eta Martijaren kontra aritzera. Sakandarrak pasako dira finalera inoren gustukoa ez den egoeran

Asteazkenean bi ordu luze egon ziren bilduta Baiko Pilota enpresako ordezkariak eta Baikoko pilotari taldearen ordezkariak. Ikusmin handia zegoen, baina ez zen akordiorik egon. “Itxaropentsu etorri gara, baina oso burumakur goaz. Desilusio handia hartu dugu” azaldu zuen bukaeran Ibai Zabala pilotariak. “Ez digute inongo informaziorik eman, inolako erabaki zuzenik. Hitz gardenik ez” gaineratu zuen Zabalak, eta kontraturik gabe gelditu diren lau pilotarien gaiaz, eztabaidatzeko aukerarik ere ez zela egon. Baikok, komunikatu bidez, hitz egiteko eta negoziatzeko borondatea duela azaldu zuen, eta enpresa prest dagoela lan harremanetan ikuspuntu kolektiboagoarekin aurrera egiteko. Halaber, pilotariek eskutatuko zenbait puntu berrikusteko prest daudela ere gaineratu zuen.

Greba

Jakina denez, Baiko Pilota enpresako pilotariek, Aimar Olaizola, Mikel Urrutikoetxea eta Ander Imaz izan ezik, grebara jotzeko asmoa azaldu zuten aurreko ostiralean. Agerraldi hartan zegoen ere Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra. Atzo pilotariak bildu egin ziren, greba deialdiari eutsiko zioten ala ez erabakitzeko, eta greba deialdiari eustea erabaki zuten.

Horrela, Baikoko pilotari taldearen greba gaur, ostirala, hasiko da, enpresari “lan baldintza duinak, errespetua eta garden-

"EZ DA PARTIDA HANDIEN TENTSIOA SENTITZEN, FOKUA BESTEAN DAGOELAKO"
JULEN MARTIJA

tasuna” eskatu eta kontratua berriro ez duten 4 pilotarien kasua berraztertzea eskatzeko. 12 eguneko greba da egingen dutena: urriak 9, 10, 11, 12, 16, 17, 18, 19, 23, 24, 25 eta 26. Jakina, honek bete betean hartzen du oraintxe bertan jokoan dagoen Binakako Txapelketa eta ondoren hastekoa den Buruz Burukoa.

Azken orduko aldaketarik ezean, finalerdirik gabe

Binakako Txapelketan, aurreko asteburuan finalerdietako ligaxkakako finalerdietako 2. jardunaldia jokatu zen. Laso ordezkatu duen Agirrek eta Albisuk 22 eta 14 irabazi zieten Erik Jakari eta Jose Jabier Zabaletari eta Olaizola II.aren eta Urrutikoetxearen kontra 22 eta 13 galdu zuten Ezkurdiak eta Martijak. Dagoen giro nahasiaren erakusle, nabarmentzekoa da Aimarrek pilota

ateratzen zuen bakoitzean txistu egin ziotela. Bizitzaren paradoxa: Binakako hasierako ligaxkan nola edo ahala ibili eta azken unean finalerdietara sailkatu ziren Olaizola II.ak eta Urrutikoetxeak finalerako txartela lortu zuten eta, aldiz, hasierako ligaxkakako bikoterik finenetakoa, Jaka eta Zabaleta, finaletik kanpo geratu zen. Bi biko hauek igandean, Tolosan, finalerdietako ligaxkakako 3. partida jokatu dute, ezer jokoan ez dutela (17:00, ETB1), eta Olaizola eta Urrutikoetxea grebalarien artean ez daudenez, partida bere horretan mantenduko dela aurreikusten da, aldaketarik ez badago.

Beste bikote finalista nor izango zen larunbateko Bizkaiko partidak erabaki behar zuen. Ezkurdiak eta Martijak Agirre eta Albisu zituzten aurkari (17:30, ETB1), baina Baikokoak greban daudenez, ez da partida jokatu eta Ezkurdia eta Martija pasako dira finalera, inork nahi ez duen moduan. Egoera nahasia da, inoren gustukoa.

ELA sindikatuak aurreko astean esan zuen Agirreri eta Albisuri partida galdutzat ematen badiete, pilotarien greba egiteko eskubidea bera jarriko litzatekeela kolokan. Beraz, erabakiak hautsak harrotu ditu,

Gogoratu beharra dago, Aspek pilotari guztiak, Ezkurdia, Zabaleta eta Martija barne, euren elkartasuna adierazi zietela aurreko astean Baikoko pilotariei, Beraz, euren dako ere ez da batere gozoa halako egoera gertatzea. Inoiz baino gehiago pilota Baiko enpresaren teitlatuan dago, hark baitu giltza egoera bere onera eraman eta konponbidea aurkitzeko.

"Aste arraroa" dela aitortu zuten material aukeraketan

Giro nahasi honetan, asteazkenean larunbateko partida erabakigarriak pilotak bereizi zituzten Joseba Ezkurdiak, Julen Martijak, Asier Agirrek eta Jon Ander Albisuk Bizkaia pilotalekuan. Jakina, Baikon gertatzen ari denak baldintzatu zuen material aukeraketa. Baikoko pilo-

"PENA DA PILOTA ZALEENDAKO ERE EGOERA HONETAN EGOTEA. TRISTEA DA"
JON ANDER ALBISU

tariek nabarmendu zuten bizitzen ari diren egoera ez dela batere gozoa. “Tristea da. Azken bi aste hauetan pilotaz baino beste gauza batzuez hitz egiten da, eta pena da pilota zaleendako ere egoera honetan egotea; ea egoera hobetzen den” adierazi zuen Albisuk. Antzera mintzatu zen Martija. “Pandemia eta Baikoren kontuekin ez da sentitzen pilota partida handietako tentsio eta kezka maila hori. Pena da fokua kanxetatik kanpo egotea eta ez finalerdi batean” adierazi zuen.

Jon Ander Albisuk nabarmendu zuen larunbatean Bilbon egon nahi dutela, baina pilotarien bileran erabakiko zela hori. “Gogotsu gaude larunbatean hemen egoteko, horrelako partida bat ez baita askotan jokatzeko” aitortu zuen. Ezkurdiak ere hala nahi-ko lukeela azaldu zuen. “Aste arraroa izan da; gu saiatzen ari gara hau guztia alde batera uzten, gure eskutan dagoena egiten. Ea dena bere onera etortzen den eta larunbatean finalerdi garrantzitsu hau jokatzeko den” gaineratu zuen arbizuarrak. Finalerdia, hil ala bizikoa aurreikusten zuela gaineratu zuen Ezkurdiak. “Gauza asko hobetu behar ditugu Eibarren galdu genuen partidatik, partidaren sartu gabe hasi baikin. Erasokor jokatu eta inizatiba guk geuk dugunean funtzionatzen du ongi gure bikoteak, eta igandean ez genuen egin” aitortu zuen.

Bere aldetik, Martijak adierazi zuen finalerdiak jokatzeko “gogo ikaragarria” zuela. “Gu jokatu dugulakoan gaude eta horrela pentsatu behar dugu” gaineratu zuen.

Tamalez, guztia pikutara joan da. Esan bezala, Baiko Pilota enpresako arduradunek dute guztia bidera eramateko giltza.

Bakaikoa aurrera

Joanes Bakaikoa aurrelari etxarriarrak Buruz Buruko Txapelketan aurrera egin du, aurreko ostiralean Etxarri Aranatzen jokaturako atariko partidaren artean II.ari 22 eta 14 irabazi eta gero. Bakaikoak, tartea zabaltzea eta partida bere aldera eramatea lortu zuen.

Maidar Betelu Ganboa OLAZTI

Olaztiarra eta motorzalea. Ez da sorpresa handia. Eneriz Besgak txikitatik oso argi zuen motorraren munduan murgilduko zela. Eta ongi doakio.

Zenbat urterekin ikasi zenuen gidatzen?

Aitarekin ikasi nuen, 12 urte inguru nituela.

Olazti eta auto lasterketak. Urbasako igoera. Txikitatik lasterketarako autoak ikustera ohituta egongo zarete, ezta? Paisaiaren parte izango dira.

Bai, Olaztin autoen zaletu garen asko gaude, txikitatik jada grina genuenak. Alde horretatik, Urbasako Igoeran aritzea gutako edonoren ametsa izan da. Haurrak ginela, Harby eta Iban Lopez de Goikoetxea pilotuen bajeretatik pasatzerakoan beti adi egoten ginen, ea autoa prestatzen ote zeuden. Urbasako Igoeraren aurretik bereziki. Izan ere, igoerarako autoak prestatzen ari zirela, herriko bajeretan sekulako giroa egoten zen, eta gu batetik bestera ibiltzen ginen.

Hortaz, argi zenuen motorraren mundu honetan sartuko zinela.

Oso argi. 2018 urtean hasi nintzen autoarekin, 28 urte nituela, orain bi urte. Aurretik enduroko motorra nuen, baina sorbaldan ebakuntza egin zidaten, eta orduan motorra saldu eta autoa erosi nuen. Horrela izan zen, di-da, gehiegi pentsatu gabe. Citroen Saxo bat erosi nuen Bilbon, egun erabiltzen dudana. Bigarren eskukoa zen, baina prestatua erosi nuen, lasterketetarako propio prestatua: segurtasun barrak jarriak, lasterketetarako eserlekuak, arnesak... guztia prest.

Zein izan zen zure lehendabiziko lasterketa? Oroitzapen ona duzu?

Autoa Urbasako Igoerarako erosi nuen, baina justu urte horretan ez zen jokatu, bertan behera geratu zen. Autoa prest nuen ez eta lasterketetarako lizentzia ere aterata nuen ez, Kantabriara joan nintzen eta bertan aritu nintzen lehenengoz. 2018 urte horretan bilasterketa egin nituen, eta biak Kantabrian. Bi mendi igoera ziren, eta, hortaz, bakarrik aritu nintzen, kopiloturik gabe, eta oso ongi, egia esan. Oroitzapen oso ona dut.

Lehendabiziko lasterketetan aritzeak errespetua emango du, ez?

Bai... adrenalina topera! Baina helmugara ailegatzean, sekulako erlaxazioa. Esperientzia mundiala da.

"Lau probatan aritu gara; arantza atera eta oso kontentu gaude"

ENERIZ BESGA EZKURRA PILOTUA

AUTOMOBILISMOA Eneriz Besga pilotu olaztiarrak denboraldi berezi honetan 4 lasterketetan parte hartu ahal izan du eta bere mailan, 2. kategorian, hirutan irabazi du



Eneriz Besga, eskuinean, eta Javi Goikoetxea, Malerreko Rallysprintean. UTZITAKOIA

Lanbidez ez zara auto mekanikaria izango?

Ez, mekanikan hasi nintzen, baina ez zitzaidan gustatu. Kotxeak gustuko ditut, baina kotxeak konpontzen lan egitea, ordea, ez zait gustatzen. 2008ko krisia zen, gogoan dut, eta mekanizazioa ikasten hasi nintzen. Beasainen egiten dut lan mekanizazio tailer batean, tornu batean. Goizez egiten dut lan eta arratsaldean... kotxea prestatzera.

Auto bat puntuan jartzeko garaian, asko aldatzen da rally baterako baldin bada, edo igoera baterako edo rallysprint baterako bada?

Auto bakoitza ezberdina da. Iban Lopez de Goikoetxearenak, esaterako, gerra gehiago ematen zuen. Nireak ez du horrenbeste lana ematen, baina kaxarekin arazoak izan ditut. Uste dut oraingoan jada asmatu dugula. Lasterketa batetik bestera autoa ez da asko ikutzen: torloju guztiei errepaso bat egin, balaztak ongi begiratu, likido mailak edo nibelak begiratu eta listo. Eta eguraldiari begira beti bi motatako gurruplak ematen ditugu, lehorrekoak eta euritakoak, euria egiten badu han aldatzeko.

"JAVI GOIKOETXEA SEKULAKO KOPILOTUA DA; LASAITASUN HANDIA EMATEN DU ETA HORI HANDIA DA"

Euriarekin gidatzea gustuko duzu?

Euriarekin behin lehiatu izan naiz, Kantabriako rallysprint batean. Istripua izan nuen, baina sekulako esperientzia izan zen. Oso gustura ibili ginen, sekulako denborak egin genituen, ez genuen pentsatzen horrela ibiliko ginenik kontuan hartuta nire hirugarren lasterketa zela. Gure mailan, 2. klasean, 25 auto zeuden eta lehendabiziko eta bigarren eremuan hirugarren sailkatu ginen. Jakina halako denborak egitea sorpresa izan zen. Baina gero kolpea etorri zen. Izan ere, oso ongi zihoan lasterketa, gehiegi. Orain bideoak ikusten ditugu eta pentsatzen dugu: gehiegitxo zen...

Lasterketa guztiak grabatzen dituzue?

Go Pro kamara txikia dut eta lasterketa guztiak grabatzen ditut.

Ikusteko politikak direlako ala gidatzeko teknika hobetzeko?

Batetik, oso gustuko ditut halako bideoak. Eta, bestetik, zerbait hobetu daitekeen ikusteko erabiltzen ditugu ondoren, akatsen bat egin ote dugun... Rallysprintetan oharrak hartzen ditugun egunean kamara eramaten dugu, eta oharrak ongi hartuta ditugunean, ibilbidearen azken pasada grabatzen dugu. Rallysprintaren egunean, proba hasi baino lehenago, bideoari errepaso bat ematen diogu, oharrak begiratzearekin batera. Horretatik grabatu eta gordetzen ditugu bideo horiek.

Nor da zure ohiko kopilotua?

Lagun ezberdinekin hasi nintzen. Lehendabiziko rallysprinterako Ander Gurmindori esan nion, lizentzia aterata baitzuen. Gero Olaztiko lagun ezberdinei esan nien. Joan den urtean Asturiaseko Rally garrantzitsu batean aritzera joan nintzen eta hara Javi Goikoetxea olaztiarra etorri zen.

Javi Goikoetxea sekulako kopilotua da.

Bai, harrigarria. Berarekin hasi ginen Gro Pro-ko bideoak errepasatzen. Orain ere berarekin egiten ditut lasterketak. Oso jatorra da, eta lasaia. Lasaitasun handia ematen du, eta hori gurea bezalako kirolean handia da. Bideoak ikusten dituzu eta gozamen da: bera lasai lasai oharrak esaten... eta niri horrek izugarri lagundu eta lasaitzen dit. 2019ko abenduko zubian ibili ginen Asturiasko Rallyan. 10 lagun joan

ginen, Sakana Motorsport taldekoak guztiak. Ongi genbiltzan, baina azkeneko eremua hasi aurretik kaxa apurtu zen eta utzi behar izan genuen. Hala ere, sekulako esperientzia izan zen; ea aurtengatik dugun. Egutegian jasoa dago, abenduaren 6an, Cangas de Narceako Rallya. Ateratzen bada, han egongo gara.

Aurtengatik oso automobilismo proba gutxi jokatu dira baina, behintzat, arantza ateratzeko aukera izan duzue.

Lau lasterketetan aritu naiz ni. Pandemia aurretik Gabiriakoa jokatu zen, baina ni ez nintzen aritu Olaztikoko ihoteak zirelako. Konfinamenduaren ondoren lau probatan aritu naiz: Malerreka Rallysprintean, Javi Goikoe txearekin, Aiako Igoeran, bakarrik, Lesakako Rallysprintean, Javi Goikoe txearekin, eta Aramaioko Rallysprintean, Mikel Pinto kopilotu zela. Gutxienik arantza atera dugu.

Eta zer moduz ibili zarete?

Oso, oso ongi. Nire mailan, 2. klasean, hiru lehenengo postu (Mallerrekako Rallysprinta, Aiako Igoera eta Lesakako Rallysprinta), eta bigarren postu bat (Aramaioko Rallysprinta) egin ditugu. Oso kontentu gaude.

Automobilismo lasterketetan lehia-tzeko dirua behar da.

Lizentzia urtero atera behar da. Suaren kontrako jantziek homologazio zenbaki bat dute eta hura kadukatzeari berritu behar da, lasterketa bakoitzeko izena emateagatik ordaindu behar da, autoaren mantenua, gorpilak....

"JOKATUTAKO LAU PROBATATIK NIRE KATEGORIAN HIRUTAN GAILENDU NAIZ; OSO KONTENTU GAUDE"



Eneriz Besga eta Javi Goikoe txear aurtengatik Malerreka Rallysprintean gora. UTZITAKOA

Dirulaguntzarik ba al duzu?

Dirua, berez, poltsikotik jartzen dut, baina beste behar batzuetarako trukeak egiten ditugu. Esaterako, asistentziara eramaten dugun furgoneta Olaztikoko Itzalo tailerrak uzten digu; Barandi Tabernak asistentziako kateringa prestatzen digu; Autoreparaciones Lautada tailerrak -nik bertan lan egin nuen- behar ditudan piezak lortzen dizkit eta Puertas Mejicoko nagusiak laguntza ekonomikoa ematen dit. Nola edo ahala moldatzen gara, ahal duguna estaltzen dugu. Gure kasuan ez dugu esaten: "aurten Euskadiko Txapelketa osoan parte hartuko dugu". Ezin dugu halakorik planteatu. Egunak etorri ahala joaten gara ikusten zein lasterketetan aritu ahal gaitezkeen eta non ez.

Dituzun emaitzak kontuan izanda, baliabide gehiagorekin beste helburu batzuk planteatu ahalko zenituen, gorago begira jarri.

Guztioi gustatuko litzaiguke gora begiratzea, baina ni nagoen bezala kontentu nago, lagunekin, eta nahikoa dut honekin.

Hortaz, hurrengo helburua abenduaren 6ko Asturiasko Rallya da.

Bai. Azaroaren 21ean Nafarroako Txapelketarako puntuagarria zen Callaghan Rallysprinta zen jokatzekoa, eta justu jakin berri dut bertan behera geratu dela. Beraz, Asturiasko Cangas del Narcea Rallya egiten bada, hori izango da aurtengatik denboraldiko nire azkeneko proba. Kantabrian ere badaude beste proba batzuk, baina ikusiko dugu.

COVID-19 dela eta, zein dira bete behar dituzuen segurtasun neurriak?

Asistentzia gunearen kontrola da aipagarrienetakoa. Lehen asistentzia gunera lagun pilo bat etortzen ziren, eta orain ez dute uzten; gehienez 3 mekanikari egon ahal dira asistentzian. Rallya bada, autoan maskara jantzita izan behar dugu pilotuak eta kopilotuak, baina proba hasita kentzeko aukera dugu. Izan ere, lasterketarako kaskoa eta soto-kaskoa eramaten ditugu eta horrekin nahikoa da. Igoeren kasuan, pilotuak bakarrik gaudenez, proban maskara gabe goaz, kaskoa baitugu, eta goian, beste

pilotuekin biltzen garenean, maskara jantzi behar dugu. Dena den, niretzat gogorrena asistentziakoa da. Lehen sekulako giroa zegoen: senitartekoak, lagunak... Orain xarma galdu du.

Ikusleak joan daitezke?

Orain arte ibilbidera joan ahal ziren, maskara jantzita eta distantziak mantenduz. Gutxienik zaleen babesa izan dugu. Baina asistentzia gunera ezin dira sartu. Asistentzia guneak kontrolatuta egoten dira. Pultsera bat jartzen digute eta soilik pultsera dugunak sar gaitezke.

Sakana Motorsport eta Irurtzun-Arakil dira Sakanako eskuderiak. Zenbat pilotu zaudete Sakanan?

Mordoxka. Sakana Motorsport eskuderialar ia gehienak, sei-zazpi, pilotuak gara. Irurtzun-Arakil eskuderialar badago beste pilotu

"GUZTIOI GUSTATUKO LITZAIGUKE GORA BEGIRATZEA, BAINA NAGOEN BEZALA POZIK NAGO, LAGUNEKIN"

kuadrilla bat. Sakanan badago afizioa, bai, eta jarrai dezala!

Sakana Motorsportek antolatzen duen lasterketa garrantzitsuenak Urbasako Igoera da. Aurtengatik bertan behera utzi zenuten, pandemia-rengatik.

Aritu garen probatan asistentzia gunea leku itxi batean jarri dute. Urbasako Igoeran Urbasako bidean, Urbasako Etorbidean egoten da asistentzia gunea, eta hura ixtea ia ezinezkoa zen. Egiaztapenak areto futboleko pistan egiten ziren, Clinkerren... hori guztia kentzea ez genuen ikusten. Eta pentsatu genuen datorren urtean Sakana Motorsportek 10 urte beteko dituela, egoerak hobera egitea espero dugu eta ea guztia antolatu dezakegun: Urbasako Igoera, Olaztikoko Rallysprinta...

Olaztikoko txikiak jarraitzen dute zuengana, pilotuengana hurbiltzen? Automobilismoak etorkizuna al du?

Etorkizuna ez dakit, baina zaleatasuna, behintzat, bai. Autoak ateratzen ditugunean, segituan etortzen dira haur eta gaztetxoak euren bizikleta gainean, gu txikiak ginenean egiten genuen bezala. Hortaz, egon, badago.

Zer ote du motorren hots horrek... Ez dakit! (kar, kar...).

Auto elektrikoak ere hor daude, baina ez da gauza berdina. Auto elektrikoaren Formula 1 Txapelketak arrakasta omen du, baina lasterketa batean motorren hotsa ez dakit %50 izango ote den, baina %30 bai.

Edo gehiago! Hotsik gabeko lasterketa bat ez da berdina. Xarma galtzen du. Urbasako goiko azken bihurtuneetan sortzen den soina eta giroa hotsik gabeko auto elektriko batekin alderatu eta zer esango dizut... kaka zaharra. Berdin jarraituko dugu, gasolinarekin!

ON-LINE HITZALDIA:

EUSKARAZ EGITEN DEN KIROLA ASKOZ ERE GEHIAGO DA

Zergatik da garrantzitsua kirola eta eskolaz kanpokoak euskaraz egitea?

Nola sustatu euskara kirolean eta aisialdian?

- Urriaren 15ean, ostegunean, 17:00etatik 18:00etara
- Hizlaria: Esther Lakasta (Dindaia)
- Eman izena: 948 464840 telefonoan edo euskara2@sakana-mank.eus helbidean.
- Epea: urriaren 15ean 12:00etan.










Mikel Uncilla, Nahia Imaz, Igor Arrieta eta Ailetz Lasa astelehenean Nafarroako Erlojupeko Txapelketan. MARTIN EARLY

Maidar Betelu SAKANA

Los Arcosko Nafarroako Zirkuituan autoek ez, txirrindulariek egin zuten hegan astelehenean. Nafarroako Erlojupeko Txapelketa jokatu zen, eta gure txirrindulariek, beste behin, sekulako maila eman zuten.

Kadeteak: Uncillak dio 'dena' eman zuela

Kadeteetan izan genuen ordezkariarik zabalena. Zirkuituari 2 itzuli eman behar zizkieten, 8 km guztira. Gizonezkoetan, Azkarak taldeko Xabier Zabala gailendu zen (10:22) eta Quesos Albeniz-Burunda taldeko Mikel Uncilla hirugarrena sailkatu zen (10:56). Egindakoarekin pozik zegoen Mikel Uncilla etxarriarra. "Egia esan, oso gogorra izan zen, haizeak jotzen baitzuen. Zirkuituan aritzea ez zitzaidan horren arraroa egin; dena eman nuen eta pozik nago egindakoarekin" azaldu du kadeteen hirugarren kutzara igo zen etxarriarrek.

Kadeteak: Nahia Imaz txapelduna, 'oso pozik'

Emakumezkoetan Ermitagaña Nafarroa taldeko Nahia Imaz altsasuarra igo zen podiumaren gorenera (12:21), bere taldekide Laia Puigdefabregasi 12 segundo ateratu eta gero. Oso ongi ibili zen egungo Nafarroako txapelduna dena. Altsasuarrarendako ez zen Nafarroako Zirkuituan aritzen zen lehen aldia. "Egia esan ez da ohikoa horrelako zirkuituetan lehiatzea, baina ez da lehen aldia.

Erlojuaren kontra, azkarrenak

TXIRRINDULARITZA Nafarroako Erlojupeko Txapelketak jokatu berri dira Nafarroako Zirkuituan. Igor Arrieta eta Nahia Imaz Nafarroako junior eta kadete txapeldunak dira, Ailetz Lasa 23 urtez azpiko txapeldunordea eta Mikel Uncilla hirugarren kadetea

Aurretik ere eskola mailan lasterketa bat egin genuen Los Arcosko zirkuituan, eta aurreko ostegunean ere bertan izan ginen, Nafarroako Selektzioarekin entrenamendu bat eginen. Bestalde, joan den urteko Espainiako Txapelketako taldekako erlojupekoa ere Chesteko Zirkuituan (Valentzia) egin genuen, eta irabazi genuen. Berez, ohiko errepideetatik nabaritzen den aldea da errepidea oso zabala dela, eta oso egoera onean dagoela. Horretaz gain, Nafarroako Zirkuituaren ezaugarri bereizgarriena haizea da. Gogor jotzen du haizeak" aipatu du Imazek, Uncillak adierazitakoa berretsiz.

Lehia oso estua izan zela gaineratu du Nafarroako txapeldunak. "Halako probetan lehia oso estua izan ohi da. Kontuan izanik taldekideen artean beti hortxe-hortxe ibiltzen garela, oraindik

zailagoa izan ohi da. Halako erlojupekoetan denbora guztian ahal duzun azkarren joan behar zara, baina, aldi berean, indarrak gordetzen jakiteak izugarritzko garrantzia du" aitortu du.

Nahia Imazek sekulako denboraldia egin du. "Oso gustura nago ez ohiko denboraldi honetan lortutakoarekin. Ziklokrosean, errepidean eta erlojupekoan Nafarroako Txapelketa irabaztea lortu ahal izan dut, eta, horretaz gain, Euskadiko Txapelketan eta Euskaldun Trofeoan ere garai-pena lortu dut. Beraz ezin nahiz kexatu!" dio altsasuarrak. Eta ez da gutxiagorako. Eta entrenatzaileak izan ditu gogoan. "Hemendik eskerrak eman nahiko nizkieke Burunda taldean hasi eta Ermitagaña taldean orain arte izan ditudan entrenatzaile eta laguntzaile guztiei. Milesker!" eskertu du.

Juniorrak: Igor Arrietaren beste bat Juniorren mailan txirrindulariek 4 itzuli eman zizkieten Nafarroako Zirkuituko pistari (16 km). Sakana Group-Aralar taldeko Igor Arrietak hegan egin zuen eta berak egin zuen denborarik onena (19:59), Quesos Albeniz-Burunda taldeko Korteko Aznar anaien aurretik. Unai Aznar bigarrena izan zen, (20:36) eta Hugo Aznar hirugarrena (21:05).

"Nafarroako Zirkuituan aritzeak ez ninduen eragin. Beste erlojupeko bat bezala hartu nuen txapelketa, eta ongi ateratu zen" azaldu du txapeldunak. Ondo dagoela aitortu du. "Hauek ez dira ohiko datak, baina denboraldia bukatzen ari gara, eta egindakoarekin ongi nago" nabarmendu du. Ez da gutxiagorako. Nafarroako eta Euskadiko txapelduna da, Nafarroako Erlojupekoko txapelduna, Espai-

Nafarroako Erlojupeko Txapelketa

Kadeteak, gizonak (8 km)

1.Xabier Zabala (Azkarak)	10:22
3.Mikel Uncilla (Q. Albeniz)	10:56
5.Ander Villalobos (Q. Alb.)	11:24
6.Unax Trevejo (Q. Alb.)	11:29
8.Asier Etxeberria (Q.Alb.)	11:33
14.Alex Lopetegui (Sakana G.)	12:00
15.Iker Agudelo (Q. Alb.)	12:05
16.Mikel Regil (Q. Alb.)	12:10
17.Manex Zufiaurre (Q. Alb.)	12:11
21.Aritz Oiarbide (Sakana G.)	12:21

Kadeteak, emakumeak (8 km)

1.Nahia Imaz (Nafarroa)	12:21
-------------------------	-------

Juniorrak, gizonak (16 km)

1.Igor Arrieta (Sakana G.)	19:59
2.Unai Aznar (Q. Alb.)	20:36
3.Hugo Aznar (Q. Alb.)	21:05
4.Iker Mintegi (Q. Alb.)	21:33
9.Jon Erdozia (Sakana G.)	22:36
19.Unax Miranda (Sakana G.)	23:42

23 urtez azpikoak (20 km)

1.Mikel Retegi (Lizarte)	25:15
2.Ailetz Lasa (Laboral K.)	26:17
4.Josu Etxeberria (Rural)	26:47
8.Iker Cerviño (Telcom)	27:10
10.Andoni Ocaña (Lasarg)	27:25
15.Ion Gil (Lizarte)	29:26

niako Erlojupekoko txapeldunordea eta ongi aritu zen Europako Txapelketetan.

Afizionatuak: Ailetz Lasak 'konpetentzia handia' zegoela adierazi du

Afizionatuek Nafarroako Zirkuituari 5 itzuli eman zizkieten (20 km). 23 urtez azpiko mailan Lizarte taldeko Mikel Retegik egin zuen denborarik onena (25:15), eta bigarrena Laboral Kutxako Ailetz Lasa zierdiarra izan zen (26:17).

Ailetz Lasak azaldu du "pixka bat arraroa" egin zitzailela erlojupekoa zirkuituan egitea, "horrelako zirkuitu itxietan lasterketak egitera ohituta ez gaudelako. Ez nuen ezagutzen, eta egia da zirkuitu nahiko tekniko dela bihurtuenei dagokienean" aipatu du. Afizionatuen mailan lehia handia zegoela aitortu du. "Banezien zaila izango zela, baina bigarrena izan naiz eta pozik nago" aipatu du.

Egindakoarekin pozik dago. "Denboraldi arraroa izan da. Ez dugu lasterketetan aritzeko aukera askorik eduki, eta horregatik bigarren postu honekin pozik nago" adierazi du.

Genero aniztasunaren inguruko ipuina

'Meri, Mari eta Lari' antzezlanaren izan da igandean, urriak 11, 17:00etan, Olaztiko kultur etxean. Irakurketa klubak, Javier Liñeraren 'Barro rojo', eta 'Perdiendo el juicio' ikuskizunak osatzen dute urriko agenda

OLAZTI

Maria Urcelay eta Yogurinha Borova dira *Meri, Mari eta Lari* ikuskizunaren sortzaileak eta protagonistak. Meri haurdun dago eta laster izango du umea. Aspaldi ikusi gabeko Mari lagunarekin topo egin du. Ez zekien haurdun zegoenik, eta betiko galdera iritsi da: umea zer izango den. *Meri, Mari eta Lari* antzezlanak sexu eta genero aniztasunaz, familia eredu desberdinez, beldurrak baztertzeaz eta, oro har, askatasunaz hausnartzen du. Ipuinekin eta Yogurhina Borovaren abestiekin osatutako ikuskizun bat da. Gidoia Galder Perezena da. Igandean, urriak 11, 17:00etan, Olaztiko kultur etxean izanen da. Sarrerek 3 euroko prezioa dute eta Olaztiko Udaleko kultur zerbitzuak sarrerak udalaren webgunearen bidez erostea gomendatu du. Udaletxean edo kultur etxeko leihatilan erosiz gero sarreraren zenbateko zehatza eramatea eskatzen du.

Yogurhina Borova Eduardo Gaviña laudiotarrak gorpuztutako pertsonaia da. Aktore, show woman eta kabaretaria da, eta Olaztin izanen den antzezlanaren sortzaileetako bat da eta aktoreetako bat da, Maria Urcelayrekin batera. Las Fellini taldean sortu zuen duela 26 urte, Bilbon. Ha-



'Meri, Mari eta Lari' antzezlanaren une bat. UTZITAKOIA

sieran *Spice Gays* ikuskizunean egiten hasi zen eta taldeko pertsonaiei izena jartzeko beharra ikusi zutenean sortu zen Yogurhina. Hamar urte eta gero taldea utzi zuen eta abeslari bezala aritu zen; hortaz, musikaren munduan ezagunagoa da. *Meri, Mari eta Lari* ikuskizunean ateratzen diren abestiak *Sentipenak askatu* Yogurhinaren diskokoak dira. Gazteagoengana iritsi nahian argitaratu zituen kantak dira. Antzezlanaren haurrei zuzenduta dagoen arren, publiko guztietarako irekia da, "denok dugulako

sentipenak askatzeko beharra eta gogoa".

Datorren ostiralean, urriak 16, Olaztiko irakurketa klubak Har-kaitz Canoren *La voz del faquir* liburuaren inguruko solasaldia egingen du. Urriaren 30ean, ostirala, 22:30ean, *Barro rojo* antzezlanaren izan da. Frankismo garaian kartzeletan giltzapetutako gay baten istorioa kontatzen du ikuskizunak. Azaroaren 6an, ostiralean 22:30ean, komedia izango da nagusi Olaztiko kultur etxean *Perdiendo el juicio* antzezlanarekin.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA



Quinorentzat

Txikitan denbora asko pasatzen nuen Etxarriko liburutegian komikiak irakurri eta begira. Nire kuttunenak Mortadelo eta Filemon ziren, dudarik gabe, baina egun batean auskalo nola edo zergatik *Mafalda* izeneko komiki bat aurkitu nuen ene esku tartean. Marrazkiak politak ziren, irakurtzeko erraza zen – ikusten da txikitan gutxiarekin konformatzen nintzela –, liburuak forma bitxia zuen eta orrialde bakoitzean, behin baino gehiagotan, batzuetan ezkutaturik eta bistan beste batzuetan, hitz bat: QUINO.

Hala ere, oso komiki arraroak ziren, ez nuen tutik ulertzen. Protagonistak, umea izanda, Mafalda honek oso galdera bitxiak egiten ditu... Hasieran ez nuen batere gustuko, baina gero eta gehiago irakurri, gero eta zirrara handiagoa

sorrarazten zidaten Quinoren komikiek. Quino kritika soziala egiten maisua izan zen. Gure buruan ideia konplexuak eta galdera nahasiak sortzeko gai zen marrazkien bidez, eta inoiz izan den ezpata zorrotzena erabiliz: umorea. Helduek bizitzaren aurrean izaten duten jarrera pesimista, negatibo eta aspergarria umeen begien bidez erretratatzeko zuen.

Azkenean, komikiarekin ez zara barre algaraz lehertuko, burua eraginaraziko dizu. Zorritzarrez, Quinok orain dela asko utzi zuen marrazteaz. Are zori txarragoa, orain dela egun gutxi batzuk hil zen. Bere oroimenean eta eman dizkidan hainbeste une onengatik, gertuen duzuen liburutegira joan eta haren komiki bat hartzera animatzen zaituztet irakurle guztioi. Ez baitzarete damutuko.

Flamenkoaren eta euskal kulturaren arteko nahasketa

Adriana Bilbao konpainiaren 'Burdina. Hierro' ikuskizuna izanen da bihar, 19:30ean, lortia kultur gunean

ALTSASU

Flamenkoaren eta euskal kulturaren bidez *Burdina. Hierro* ikuskizunak meategien eta industriaren iragana gogortzen du. Emanaldian dantza eta musika uztartzen dira:

Beñat Achiaryk ahotsa jartzen du, Adriana Bilbaok flamenko dantzariaren mugimenduek Raul Micok kantearen, Guillermo Guillenen gitarraren eta Michel Queuillek pianoren soinuak jarraitzen dute, eta

Luis Mariano Casillas, Ander Ezeiza eta Koldo Plazas harri zultzaileak euskal kulturaren adierazle dira.

Burdina. Hierro tradizioa eta berrikuntzaren arteko ikuskizun bat da. Larunbatean, urriak 10, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean izanen da. Gallartara iristen den Andaluziako emakume baten istorioa kontatzen du ikuskizunak. Adriana Bilbaoren lanik intimoena da, baina aldi berean, unibertuala.

kaxeta
LIBURUDENDA

Abentura zirraragarriak dauzkagu zuretzat

✉ fotokopia@kaxeta.net

☎ 628.542.519

☎ 948.460.477

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

Psikologian doktorea
- Minaren tratamendua
- Antzietatea, depresioa, beldurrak
- Masaje psikoemotionala

olgamaitagari@yahoo.es

639 408 118

ALTSASU / URDIAIN

1996ko azaroaren 25ean *Zinemakumeak gara!* Emakumeek egin-dako zinema erakusketaren lehenengo edizioa egin zen Bilboko Indautxu auzoan. Zikloa *Los Goikoetxea* Beatriz de la Vega altsasuarraren film laburrak ireki zuen. 25 urte beranduago, 1993. urtean grabatutako film laburra *Zinemakumeak gara!* zikloaren mustutze ekitaldian proiektatu zuten. Ondoren, De la Vegak *Laburrean hitz egiten* mahai inguruan parte hartu zuen, Nati Ortiz de Zarate, Amara Mosteiro, Esther Cabero y Norma Vila zinemagileekin batera.

"Nik ez nekien duela 25 urte *Los Goikoetxea* filmarekin zikloa ireki zutela". Istorioa "oso polita" dela azaldu du Bea de la Vega artistak: "Madrilgo lagun batzuk deitu zidaten esanez Josu Eguren Twitter bidez nire bila ari zela". Momentu horretan Urdiainen bizi den altsasuarrak ez zuen sare soziala erabiltzen, baina Egurenekin harremanetan jartzea lortu zuen. "Zikloa antolatzen ari ziren. Film laburra ikusi zuela, gustatu zitzaiola eta 25. urteurrena harekin mustu nahi zutela esan zidan". "Txundituta" gelditu zen De la Vega. "Film hori garai horretarako ongi, baina gaur egun agian...". Eguren *Los Goikoetxea* film laburra egin zuen erlazioa kontatu zion, eta aurrera egin zuten.

Astelehenean, urriaren 5ean, mustu zen *Zinemakumeak gara!* zikloa, besteak beste, *Los Goikoetxea* film laburrarekin. "Oso polita izan zen. Ilusio handiarekin zeuden ni han egoteagatik eta hitz egiteagatik. Sorpresa handia izan zen, hor erdi ahaztuta dagoen zerbaitek bat-batean berriz bizitza har-



Esther Cabero, Beatriz de la Vega eta Nati Ortiz de Zarate mahai inguruan. ZINEMAKUMEAK GARA!

Goikoetxea anaien berpiztea

Beatriz de la Vegaren film laburrak Bilboko 'Zinemakumeak gara!' zikloa mustu du, duela 25 urte egin bezala. 1990ko hamarkadako Bilboko ezker aldearen isla da film laburra, gaur egun dokumentu historikoa bihurtu dena

tzea". Jendeak film laburra ikusteagatik "ilusioa" zuela esan du De la Vegak.

Goikoetxeatarrak

De la Vega Arte Ederrak ikasten ari zen eta azken ikasturtean

proiektu bat egin behar zuten. Ikusentzunezkoen ibilbidea ikasten ari zen eta proiektua bideo bat izan zen. "Taberna batean emakume bat entzun nuen istorio bat kontatzen, grazia handia egin zidana: Lapurreta egin on-

doren lapurrek lapurtutako dirua kotxeko leihotik bota zutela polizia atzetik zihoalako. Dirua leku heze batean erori zen, eta ordu batzuk pasa zirenean dirua berreskuratzea joan ziren". Garai horretan De la Vega Bilbon bizi zen eta azaldu duenez, "urte horietan ezker aldeak asko erakartzen zuen, indar handia zuen". Zine "kinkia" oso erakargarria iruditzen zitzaion, eta "puketik gentozen". Taberna batean entzundako istorio hura film laburaren hasierako puntua izan zen. Horrekin istorio oso bat "asmatu" zuen; bi seme dituen

"SORPRESA IZAN ZEN ERDI AHAZTUTA DAGOEN ZERBAITEK BAT-BATEAN BIZITZA HARTZEA"

amaren istorioa, hain zuzen: Goikoetxeatarrak. "Sei minutu dira baina garai horretako guztia dago: Gai soziala, gai politikoa, immigrazioa...". "Baldarkeri" bat da, "biolentzia absurdora eramatea". Errealismo zentzugabe eta komikoa bezala deskribatu du artistak *Los Goikoetxea*.

27 urte pasa dira *Los Goikoetxea* grabatu eta mustu zuenetik. Garai-egoera kontatzen zuen film laburra, eta gaur egun dokumentu historikoa bihurtu da. "Hori da harritzen nauena. Oso freskoa dago. Izugarri gustatu zitzaion zikloan". Makarra dela esan zuten. "Garai hartako nahasketak soziala eta politikoa ongi adierazten du eta ongi antzeztuta dago ere". Ia hiru hamarkada pasatu diren arren, "nahiko ongi mantendu" da. "Estetika aldetik ere retroa da, orain modan dagoena".

Zinemagilea

Garai horretan Bilbon bizi zen lagun talde bat zen. "Altsasuko lagun batek galdetu zidan ea beraiekin bizi nahi ote nuen logela bat libre zutelako, eta joan nintzen". Hiru pisutan bizi ziren: De la Vega Arri eta Bifarekin bizi zen, Alex de la Iglesia zinemagilearen filmaren dekoratzaileak, goiko pisuan De la Iglesia gidolari batekin bizi zen. "Oso lagunak ginen, egun guztia elkarrekin geunden". Momentu horretan *Accion mutante* egiten ari ziren, De la Vegak parte hartu zuen filma.

"Proiekturako bideo normal bat egin nahi nuen, baina Alexek esan zidan ezetz; ezin nuela bideo bat besterik egin. Zinean grabatu behar nuela. Nik esan nion eroturik zegoela. Nola egin behar nuen zinean". Ordurako De la Iglesia *Mirindas asesinas* film laburra kaleratu zuen eta sari asko irabazi zituen. "Beraiekin bizi nintzen eta Alex aireratzen ari zenez, giro horrekin kutxatu nintzen eta film laburra egitea erabaki nuen". Lagun taldea lan taldea bihurtu zen. "Bere bultzada ezinbestekoa izan zen". Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskatu zion eta eskuratu zuen. Taldea sasi profesionala zen arren, dagoeneko haietako askok zinemaren munduan lan egiten zutelako, film laburra etxetiarra da: "Etxeko sukaldean grabatu genuen, lagunekin...".

"Geneukana zen erreferentzia edo inspirazioa". Grabaketan

beleixe

ZUZENEAN 10:00-12:00

ERREPIKAPENAK 14:00ETAN

ONLINE ENTZUTEKO

GUAIXE.EUS



'Los Goikoetxea' film laburraren une bat. BEA DE LA VEGA

gauza harrigarriak gertatu zirela kontatu du De la Vegak: "Autobidetik ikusten diren Barakaldoko etxeorraz batzuetan grabatu behar genuen eta obra baten elementu guztiak jarri behar genituen. Iritsi ginenean dena jarrita zegoen obra bat egin behar zutelako". Castingean ere igeltserez jantzitako igeltsereoren papera egin behar zuen pertsona bat agertu zen. Nati aktorea zen eta "beste biak" lagunak ziren: Biafra eta Bustamante. Santiago Segura aktorea ere agertzen da poliziaren papera egiten. "Madrilen elkar ezagutu genuen justu garai horretan eta parte hartu nahi zuen galdetu nion, eta etorri zen".

Gaur egun

Unibertsitatea bukatu behar zuenean De la Vegak ez zeukan proiektua "guztiz" bukatuta, muntaia falta zitzaion. "Orduan, esan zidaten urte bat itxoiten banuen ohorezko matrikula jasoko nuela eta horrela, bukatu gabe, entregatzen banuen ongi bat edo lortuko nuela". De la Vegak gainditu zuen, baina dagoeneko zinemaren munduan zegoenez eta mundu horrekin "liluratuta" zegoenez, unibertsitatea bukatu nahi zuen.

Goikoetxea anaien istorioak idazten jarraitu zuen De la Vegak. "Zinema mota hau, baldarra, asko gustatzen zait. Estetika, musika, kontatzen diren gauzak, irudia...". Istorioarekin jarraitzea pentsatu zuen, eta

"gustatuko" litzaiokeen horrekin jarraitzea. Hala ere, "gaur egungo paisaiak eta lehengoak" desberdinak direla azaldu du De la Vegak. "Desagertu dira. Ezkerraldera joaten bazara Los Goikoetxea-n ikusten dena dagoeneko ez da existitzen, ez da ikusten". Hiri handietako periferian oraindik ikus daitekeela uste du artistak, baina bere egoera dela eta ezingo luke grabazioa aurrera eraman. "Istorio polita izan zitekeen arazo sozialak direlako, egoera batzuk non jendeak sufritzen duen, baina aldi berean bizitza erretzen dute".

Los Goikoetxea aurkeztu ondoren "nahiko jaialditan" egon zen eta zenbait sari irabazi zituen ere, esaterako, Madrilgo Nazioarteko Emakumeen Zinemagileen saria. "Ilusio handia egin zidan". Telebistek ere film laburra erosi zuten. De la Vega zinemaren munduan dekorazio sailean aritzen zen momentu horretan, *El día de la bestia* filmean, esaterako, eta zine zuzendaritza alde batera utzi zuen. "Baina film handietan sartu nintzen, *Torrente* pelikulara iritsi nintzen". Dekorazio sailean profesionalizatu behar zela konturatu zenean, "ez

nuen nire burua ikusten dekorazio laguntzaile lana egiten". 1997. urtean Rafael Karasatorreren *Barranca-Burunda* liburua aurkitu zuen arte. "Dokumentu historikoarekin harrituta gelditu nintzen". Bigarren film laburra egitea erabaki zuen. "Madril utzi nuen eta Sakanara etorri nintzen *Sarabe* grabatzera". Eta hemen gelditu zen. *Sarabe* film laburra Kimuak programan aukeratu zuten eta "asko mugitu" zen ere.

Proiektuak

Duela lau urte De la Vegak *Adarrak dantzan* film labur dokumentala egin zuen. Altsasuko inauteriak ikuspuntu antropologiko batetik ikertu ditu De la Vegak. Proiektu berri batekin hasi da orain, "oso etxetiarra": "Kamera bat erosi dut eta nire ama grabatzen ari naiz". De la Vegaren amak 95 urte ditu eta zaindu behar duenez, "ezin naitenez atera, pentsatu nuen etxean grabatuko nuela". Zaharzarotik heriotzerako tarte hori "interesgarria" dela uste du: "Nire amaren bizitza oso interesgarria izan da. Dagoeneko ez du burua duela bost urte bezala, baina ea zer ateratzen den". Inguruan ikusten duena ere grabatzen du; egunerokotasuna. Helburua "dokumental etxetiarra" egitea izango da. "Ez dakit non hasiko den, baina badakit noiz bukatuko den: Amaren hileta". Ikertzeko aukera emango dio.

BEA DE LA VEGAK PROIEKTU BERRI BAT JARRI DU MARTXAN: EGUNEROKOTASUNA GRABATZEA

UDAL IKASTAROAK 2020/21



MATRIKULAZIO EPEA: URRIAREN 8tik 15era
www.etxarriaranatz.eus webgunean eta udal bulegoan
Onartuen zerrenda, urriaren 16an webgunean eta iragarki oholean
Covid19a dela eta, babes neurriak hartuko dira
Ikastaroen arautegia, webgunean eta iragarki oholean

IKASTAROEN HASIERA URRIAK 17

SOINKETA LASAIA	Astearte eta ostegunetan, 16:20 - 17:15h. Urritik maiatzera	PREZIOA: 96 €
AEROBIC	Astearte eta ostegunetan, 17:20 - 18:15h. Urritik apirilera	PREZIOA: 122,40 €
TONIFIKAZIOA (Bosu, step eta Core)	Astearte eta ostegunetan, 18:20 - 19:15h. Urritik apirilera	PREZIOA: 150 €
YOGA	Kultur etxeko 2. solairuan / Urritik apirilera Asteazkenetan, 18:30 - 20:00h. Astearte eta ostegunetan, 09:15 - 10:45h. Astearte eta ostegunetan, 11:00 - 12:30h.	PREZIOA: 85 € 170 € 170 €
ZIRKO TAILERRA (Haurrendako)	Astelehenetan, urritik maiatzera. Kultur etxeko 2. solairuan 6-9 urte: 16:00 - 17:00h. 10 urtetatik aurrera: 17:00 - 18:00h.	PREZIOA: 60 €
PINTURA	Astearteetan, 15:15 - 18:15h. Kultur etxean Urritik apirilera	PREZIOA: 156 €
ESTIMULAZIO KOGNITIBOA	Zahartze aktiborako tailerra Astearte eta ostegunetan, 11:00 - 13:00h. Urritik apirilera	PREZIOA: 200 €
BERRERABILTZEAREN ARTEA - JOSKINTZA	Asteazkenetan, 16:30 - 18:30h. Kultur etxean Urritik apirilera Komenigarria da josteko makina eramatea	PREZIOA: 130 €
HIKETAN IKASTEKO IKASTAROA	Larunbatetan, 10:00 - 12:00h. Kultur etxean Urritik abendura	PREZIOA: 25 €

ETXARRI ARANAZKO UDALA

"Irudi horiek oso garrantzitsuak dira"

Aurreko ostiralean Altsasuko Gazteria zerbitzuak Gozamenez film laburren lehiaketaren sariak banatu zituen. Nagore Gonzalez Claverrek bozken bidezko saria irabazi du 'Summer vibes' film laburrarekin

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Zergatik aurkeztu zinen film laburren lehiaketara?

Hasieran lagunak aurkeztu ziren eta izena ematera animatu ninduten. Bideoak egiten hasi nintzen, irudiak eta bideoak bilatzen, eta hilabete bat edo pasa zenean Intxostiapuntatik deitu zidaten bideoa bidaltzeko. Gero bozketa ireki zuten. Instagrametik niri pertsona gehiagok eman zidan bozka eta horregatik irabazi nuen.

2 Espero zenuen?

Bai eta ez. Bai, nire ama eta biok hasi ginelako jendeari bozkatzeko eskatuz mezuak bidaltzen, eta ez, beste bideoak oso onak zirelako ere.

3 Nola izan zen sari banaketa?

Gala ospatu arte sekretua zen. Aurreko ostiralean egin zen Intxostiapuntan. Pixka bat urduri joan nintzen. Lehenengo bideo guztiak ikusi genituen. Hiru sari zeuden: taldekakoa, epailearen banakakoa eta bozken bidezkoa. Lehenengoa esan zuten eta Milakolore elkarteak jaso zuen taldekako saria, gero banakakoan nire lagun batek irabazi zuen, Cristina Mirceak, eta gero



Nagore Gonzalez Claver Gozamenez lehiaketaren bozken bidezko irabazlea. UTZITAKOA

nire izena esan zutenean lotsagorritu nintzen. Esperientzia polita izan zen.

4 Zer kontatzen du zure bideoak?

Momentuko gauzetaz, paisaie-taz eta pertsonetaz disfrutatu behar

dela. Ez dakizu leku horietara itzuliko zaren. Bakea eta lasaitasuna transmititu nahi nuen.

5 Zertan inspiratu zinen?

Lehiaketatik galdera bat esan ziguten: "Nola gozatzen eta dis-

frutatzen duzu?". Horri erantzun behar genion. Galdera horrekin irudi asko etorri zitzaizkidan burura. Aurten ezin izan dugunez bidaiatu, aurreko urtetan egon ginen Irunberriko arroilan, hondartzan eta abar eta bideoa bertan egindako irudiekin eta bideoekin osatu nuen. Irudi horiek oso garrantzitsuak dira. Leku horiek lasaitasun handia ematen digute eta hori adierazi nahi nuen.

6 Bideoak egitea gustatzen zaizu?

Argazkiak egitea gustatzen zait gehiago. Baina niretako, ez ditut erakusten. Argazki horiekin bideoak egiten ditut. Telefonoaren aplikazio batekin egiten ditut: argazkiak, bideoak eta audioak sartzen ditut. Bideo hau egiteko ere horrela hasi nintzen, aurreko urteko irudiak jartzen eta gero aurtengo beste batzuk, Urbasaoko eta abar. Txirrindula talde batekin larunbatetan leku desberdinetara joaten naiz eta argazkiak egiten ditut paisaiak gustatzen zaizkidalako. Horiek erabili ditut ere, oso ongi etorri zaizkit.

7 Etorkizunean argazkilaritzarekin zerikusirik duen zerbait ikasiko duzu?

Aurreko urtera arte edo duela bi urtera arte, gutxi gorabehera, argazkilaritza egin nahi nuen, argazkilaria izan nahi nuen, baina orduan sartu zitzaidan buruan abokatua izan nahi nuela eta seguruenik Zuzenbidea ikasiko dut. Argazkilaritza zaletasun bezala mantenduko dut.

8 Argazkilaritza ikastaroren bat egin duzu?

Intxostiapuntan Kikirekin eta Olgarekin argazkilaritza ikastaro bat egin behar genuen eta hasi ginen, baina gero pandemia etorri zen eta utzi genuen. Berriz antolatzen badute izena emango dut, bai.

9 Egiten dituzun argazkiak gero berrikusten dituzu? Nonbait elkarbanatzen dituzu?

Ikustea gustatzen zait ikustean oroitzapenak etortzen zaizkidalako burura. Batzuetan hunkitzen naiz. Aurten ez naiz inora joan eta argazki horiek ikustean leku horietara itzultzea bezala izanda, eta leku horietan egotea gustatuko litzaidakeela pentsatu dut. Ez ditut inon elkarbanatzen. Lagun batek oso ongi marrazten du eta bere marrazkiak Instagram kontu batean erakusten ditu. Baina nik ez dut nire burua ikusten horrelako kontu bat egiten, nire paisaien argazkiak erakusten.

10 Lehiaketa gehiagotara aurkeztu zara?

Hau izan da lehenengo aldia. Baina agian beste batzuetara aurkeztuko naiz. Datorren urtean antolatzen badute eta argazkiak eta bideoak badituzte aurkeztuko naiz berriz. Argazki lehiaketetara ez naiz aurkeztu ez dudalako kamera profesional bat, argazkiak mugikorrarekin egiten ditut.

11 Zer esan dizute gurasoek eta lagunek?

Amak irabazten lagundu zidan! Bideoa egin, gurasoei erakutsi eta oso polita zela esan zidaten. Poztu ziren. Lagunekin joan nintzen sari banaketara eta poztu ziren ere.

WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK
LIBURU ALDIZKARI MAKETAZIOA KARTEL PAPER GINTZA APLIKAZIOAK
IRUDI KORPORATIBOAK KOMUNIKAZIOA PUBLIZITATEA

619 821 436 • 948 564 275 • info@gkomunikazioa.eus • Foru plaza, 23-1. Altsasu



DISEINU GRAFIKOA
 WEB DISEINUA
 KOMUNIKAZIOA